

**OHIKO OSOKO BILKURA 11/12**

**UDALAK 2012ko URRIAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

**BATZORDEKIDEAK:**

**ALKATEA:**

Luis Intxauspe Arozamena jn.

**ALKATEORDEAK:**

Gloria Mendinueta Yeregi and.

Idurre Conde Santa Cruz and.

Asier San Emeterio Otegui jn.

**ZINEGOTZIAK:**

Miren Kistiñe Lujanbio Galdeano and.

Aitor Miner Aginaga jn.

Iker Goenaga Gubia jn.

Beñat Amenabar Perurena jn.

Estefanía Morcillo Cerdan and.

M<sup>a</sup> Jesus Egido Moreno and.

Jose Antonio Sánchez Almaraz jn.

Andoni Amonarraiz Gómez jn.

Juan Antonio Cuesta Solé jn.

Iñaki Barrio Sagastume jn.

2012ko urriaren 30ean ohiko osoko bilera egin da Hernaniko Udaletxean, arratsaldeko 19:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bilera Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Arantxa Urain Mendiburu idazkaria.

**KONTUHARTZAILEA:**

Antxon Garcia Nadal jn.

**IDAZKARIA:**

Arantxa Urain Mendiburu and.

**1.- AKTAK ONARTZEA: 2012-09-25 ETA 2012-10-16.** -< 2012ko irailaren 25ean egindako bileraren akta onartu da.

2012ko urriaren 16ean egindako bileraren akta ez da aurkezten.

**2.- 2012KO IRAILAREN 21ETIK 2012KO URRIAREN 23RA BITARTE HARTUTAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.** - 20112o irailaren 21etik 2012ko urriaren 23ra bitartean pertsona bakarreko honako organo hauek hartu dituzten ebazpenen berri eman da.

\* Alkate jn.

\* Zerbitzu Publikoetako delegatu jn.

- \* Kiroletako delegatu jn.
- \* Hezkuntza eta Enpleguko delegatu and.
- \* Politika Sozialeko delegatu jn.

**3.- HERNANIKO UDALERRIKO ASTEROKO FERIAREN ARAUDIAREN ALDAKETA HASTAPENEZ ONARTZEA.** - Aztertu da Zerbitzu Publiko eta Merkataritza Batzordeak 2012ko urriaren 15ean emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

- 1.- "Asteroko Feriaren Araudia"ren aldaketa hastapenez onartzea (araudiaren testua akta honen eranskinean dator).
- 2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, 30 egunez, interesa duen edonork beharrezko ikusten dituen erreklamazio, alegazio eta oharrak egin ditzan.
- 3.- Epe horretan erreklamazio, alegazio edo oharrak egiten ez bada, behin betiko onartu dela ulertuko da eta testua osorik GAOn argitaratuko da.

**4.- HERNANIKO UDAL HILERRIAREN ARAUDIAREN ALDAKETA HASTAPENEZ ONARTZEA.** - Aztertu da Zerbitzu Publiko eta Merkataritza Batzordeak 2012ko urriaren 15ean emandako irizpena.

Alkate jaunak esan du 17. artikuluan zuzenketa bat egin beharra dagoela: gaztelaniazko testuan, "de lunes a sábado" jartzen duen lekuan "de lunes a domingo" jarri behar da. Eta euskarazkoan, berriz, "Astelehenetik ostiralera" jartzen duen lekuan, "Astelehenetik igandera".

Aipatutako irizpenaren bozketa egin delarik, egin beharreko zuzenketa eginda, hau da lortutako emaitza:

- Aldeko botoak: 8 (Bildu).
- Kontrako botoak: Bat ere ez.
- Abstentzioak: 6 (3 Sozialistak, 2 EAJ/PNV eta 1 H1!).

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

- 1.- "Udal Hilerriaren Araudia"ren aldaketa hastapenez onartzea (araudiaren testua akta honen eranskinean dator).
- 2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, 30 egunez, interesa duen edonork beharrezko ikusten dituen erreklamazio, alegazio eta oharrak egin ditzan.
- 3.- Epe horretan erreklamazio, alegazio edo oharrak egiten ez bada, behin betiko onartu dela ulertuko da eta testua osorik GAOn argitaratuko da.

**5.- TAXI ZERBITZUAREN TARIFAK: 2013. URTERAKO PROPOSAMENA.** - Aztertu da Zerbitzu Publiko eta Merkataritza Batzordeak 2012ko urriaren 15ean emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

- 1.- Hernaniko auto-taxi zerbitzuari dagozkion hiri-tarifa hauek onartzea eta %1,9ko igoera aplikatzea.

\* 1 Tarifa , egunekoa:

- Abiasaria: 5,0098 euro
- Egindako kilometro bakoitzeko: 1,0651 euro.
- Itxaron ordu bakoitzeko: 20,4384 euro

\* 2 Tarifa , gauekoa:

- Abiasaria. 5,9714 euro
- Egindako kilometro bakoitzeko: 1,7061 euro
- Itxaron ordu bakoitzeko: 32,1208 euro

2.- Euskadiko Prezioen Batzordeari erabaki hau jakinaraztea.

**6.- 2013RAKO ORDENANTZA FISKALAK ALDATZEA.** - Aztertu da Ogasun eta Ondare Batzordea-Kontuetarako Batzorde bereziak 2012ko urriaren 18an emandako irizpena.

Miner jaunak (Bildu) azalpen bat eman du ordenantzak aldatzeko eta batzordean erabaki gabe geratu zen uraren tasari buruzko proposamena aurkezteko erabilitako irizpideei buruz eta Kontu-hartzailetzako Administrazio Bereziko Teknikariak (ABT) 2012ko urriaren 29an egindako txostenari buruz.

Morcillo andreak (Euskal Sozialistak) esan du egoera normal batean KPIren igoera orokorra egitearekin ados egongo zitekeela, baina une honetan nahiago izango zuela izozturik geratzea.

Alkate-lehendakariak bozketa bideratu du: Ogasun eta Ondare batzordeak-Kontuetarako batzorde bereziak 2012ko urriaren 18an emandako irizpena, Miner jaunak urari buruz aurkeztutako proposamena eta ABTak 2012ko urriaren 29ko txostenean azaldutakoen ondoriozko aldaketak bozkatu dira. Hona hemen emaitza:

\* Aldeko botoak: 8 (BILDU).

\* Kontrako botoak: 6 (2 EAJ-PNV, 3 SOCIALISTAS VASCOS ETA 1 H1!).

\* Abstentzioak: BAT ERE EZ.

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

Lehena.- Ordenantza fiskalen eranskin hauek aldatzea 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

### **1. ZERGAK:**

#### **1.1 ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA**

1. Zergari aplikagarri zaizkion karga tasak:

% 2,4ko igoera

Hirilur Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaizkion karga tasak:

- Lurzoru erresidentzialean kokatutako hiri ondasunak: ehuneko 0,1940
- Lurzoru industrial edo tertziarioan kokatutako hiri ondasunak: ehuneko 0,4886

Landaluz Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa ehuneko 1,0124koa da.

## 1.2 EKONOMI JARDUEREN GAINEKO ZERGA

1. Gutxieneko kuotak igotzeko %2,12ko koefizientea mantendu egiten da.

2. Ponderazio koefizientea ezartzen da: Udal zerga tarifetan gutxieneko kuotak gehituko dira, udal zergak ordaintzeko sistema berrituan martxoaren 19ko 4/2003 Foru Arauan 11. artikuluan azaltzen den taularen arabera

## 1.3 TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

%2,4ko igoera, kasu hauetan izan ezik: turismoen lehenengo bi tarifak, kamioiak, traktoreak eta beste ibilgailu batzuetako lehenengo bi tarifak (horien zenbatekoak 2012. urtean bezala mantendu egiten dira)

<b>TURISMOAK</b>	<b>igoera koef</b>	<b>2013 kuota</b>
9 zaldi fiskaletik beherakoak	1,48	27,25
9 eta 11,99 zaldi fiskal bitartekoak	2,18	80,00
12 eta 13,99 zaldi fiskal bitartekoak	2,43	148,70
14 eta 15,99 zaldi fiskal bitartekoak	2,48	213,15
16 eta 19,99 zaldi fiskal bitartekoak	2,56	283,00
20 zaldi fiskaletik gorakoak	2,65	357,00
<b>AUTOBUSAK</b>		
21 plaza baino gutxiago	2,35	195,90
21 eta 50 plaza bitartean	2,37	281,55
50 plaza baino gehiago	2,43	359,75
<b>KAMIOIAK</b>		
1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	2,30	97,10
1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	2,30	191,30
2.999 kg-tik gorako eta 9.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	2,31	274,40
9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	2,36	350,65
<b>TRAKTOREAK</b>		
16 zaldi fiskal baino gutxiago	2,27	40,05
16 eta 25 zaldi fiskal bitartean	2,29	63,50
25 zaldi fiskal baino gehiago	2,29	190,50

<b>TRAKZIO</b>	<b>MEKANIKOKO</b>	<b>IBILGAILUAK</b>
<b>ERAMANDAKO ATOIAK ETA ERDI-ATOIAK</b>		
750 kg-tik gorako eta 1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	2,32	41,00
1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	2,34	65,00
2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	2,34	195,05
<b>BESTE IBILGAILU BATZUK</b>		
Ziklomotoreak	2,28	10,27
125 cm <sup>3</sup> bitarteko motozikletak	2,28	10,27
125 cm <sup>3</sup> baino gehiagoko eta 250 cm <sup>3</sup> bitarteko motozikletak	2,43	18,75
250 cm <sup>3</sup> baino gehiagoko eta 500 cm <sup>3</sup> bitarteko motozikletak	2,48	30,30
500 cm <sup>3</sup> baino gehiagoko eta 1.000 cm <sup>3</sup> bitarteko motozikletak	2,48	76,60
1.000 cm <sup>3</sup> -tik gorako motozikletak	2,48	153,20

#### 1.4 ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEN ZERGA

##### 1. Zerga-egitatea eta zerga-kargak aldatzea:

	<u>Karga mota</u>
Ondoko zerga-egitatea ezarri dira:	
1.- 12.000 eurotik beherako kostua duten obrak	%0
2. Merkataritza-lokal txikiak berritzeko, 60.000 eurotik beherako kostua duten obrak	%0
3.- Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Bizigune programa barruan burututako obrak	%2
4.- . Erregimen Orokorreko Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke obrak	%2
5.- . Erregimen Tasatutako Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke obrak	%3,5
6.- Obra txikiak	%4
7.- Obra handiak	%5
8.- Nekazaritzako jarduerekin zerikusia duten instalazio edo eraikinetako obrak:	
12.000 eurotik gorako kostua	%1,65
9.- Nekazaritza jarduerarekin zerikusia duten etxebizitzetarako xedea duten eraikinetako obrak, betiere etxebizitza hori ustiapenaren titularraren ohiko etxebizitza gisa erabiltzen bada (dedikazio osoa duenean):	
12.000 eurotik gorako kostua	%1,65

#### 1.5 HIRILURREN BALIOAREN GEHIKUNTZAREN GAINEN ZERGA.

##### 1. Zergaren tarifa :

- a) Bat eta bost urte bitartean: %10a  
 b) Hamar urte bitartean: %9a  
 c) Hamabost urte bitartean: %8a  
 d) Hamasei urteetatik aurrera : %7a

**2.- UDAL JABETZA PUBLIKOA OKUPATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK:**

Ordenantza Fiskalaren ondoko eranskin hauen kuotak aldatuko dira:

**2.1. IBILGAILUAK ESPALOIETAN ZEHAR FINKEN BARRUKO ALDERA SARTZEA ETA HORIEK BIDE PUBLIKOAN DUTEN APARKAMENDU ERRESERBA.**

**%2,4ko** igoera

2.1.1 Tarifak:

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euro</u>
a) Ibilgailuak espaloietan barrena sartzea (igarobide partikularrak, industria, garaje publiko eta kolektiboetarako igarobidea):	
-toki bakoitzeko	8,60
b) Bide publikoan espazioak erreserbatzea:	
- Metro linealeko edo zati bakoitzeko	33,70
c) Ibilgailua utzi nahiz aparkatzea debekatzea:	
- Metro linealeko edo zati bakoitzeko	16,85

**2.2.- HORNIKUNTZA ZERBITZUAK USTIATZEKO ENPRESEK ORDAINDU BEHARREKO TASAK, UDAL JABETZA PUBLIKOKO LURRA, HEGADA ETA LURRAZPIA OKUPATZEAGATIK.**

Karga-tasa mantendu egiten da.

**2.3. BIDE PUBLIKOEN APROBETXAMENDU BEREZIAK:**

**%2,4ko** igoera, J) atalean izan ezik

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euro</u>
a) Kanpoko mahaiak (mahai bat eta lau aulkirentzat):	
Urteko iraupena, m <sup>2</sup> edo zatiko	35,30
Urteko iraupena, m <sup>2</sup> edo zatiko	23,45
b) Terraza, instalazio finkoekin (estalkidun itxitura, toldo, markesina edo antzekoak)	
m <sup>2</sup> edo zatiko	186,80

c) Makina automatiko eta antzeko instalazioekin okupatzeko, aldi baterako edo behin betiko, unitatea (gehi 14,50 m <sup>2</sup> urteko)	13,00
d) Bide publikoa okupatzea, hesi, salgai, aldamiio eta abarrekin	
Salgaiak, hondakinak, lurra, harea, materialak: m <sup>2</sup> edo zatika eta eguneko	2,25
Hesiak, aldamiioak edo bestelako instalazio egokiak: m <sup>2</sup> edo zatika eta eguneko	0,48
Zakarrak, aldamiioak, edo bestelako instalazio egokiak. m <sup>2</sup> edo zatika eta eguneko	3,65
Zutabe, eustaga edo eusteko beste hainbat elementu. Bakoitzeko eta hamabostaldiko edo zatika	7,70
e) Klean, salmenta postu finkoa:	
Izozkiak (maiatzaren 1etik urriaren 31 arteko aldia)	375,40
Gaztainak (urriaren 1etik martxoaren 31 arteko aldia)	104,60
Txurro eta buñuelo postua (hileko edo zatika)	187,60
Gainontzeko baimendutako artikuluak (m <sup>2</sup> -ko edo zatika) eguneko	9,30
f) Jai nagusietan eta auzoetako jaietan barraka eta jolasguneekin okupatzea: hitzarmena Gipuzkoako Ferialarien Elkartearekin.	
g) Zirko ikuskizunak edo antzekoak:	
1.000 ikusleentzat, eguneko	234,95
1.000 ikusleentzat baina gehiago, eguneko	310,15
765 €-ko fidantza bat ezarriko da, udal teknikarien oniritzia jaso ondoren itzuliko litzatekeena.	
h) Bide publikoa jaiegunetan okupatzea (San Joan, Inauteriak, San Inazio, etab.), Gipuzkoako Ferialarien Elkartearekin izenpetutako Hitzarmenaz kanpo geratzen diren postuak	
Bisuteria, larrukigintza, eskulangintza, arropa, etab. metroko:	
* Eguneko	18,65
* Jai-eguneko	56,40
Hanburgesak, ogitartekoak, etab. saltzea, metroko eta eguneko	39,30
i) Bide publikoa okupatzea kioskoekin, prentsa saltzeko postuekin, ONCEko kabinekin eta bestelakoak.	
Prentsa kioskoak m <sup>2</sup> bakoitzeko urtean	29,10
Prentsa saltzeko postuak, hilean	4,60
ONCEko kabinak:urtean	290,00
Argazkiak ateratzeko kabina: urtean	290,00
j) Kutxazain automatikoak fatxadatik eskaintzen duten autozerbitzuak, instalazio bakoitzeko eta urteko	300,00

#### 2.4. ASTEKO FERIA ETA UDALETXEKO ARKUPEETAKO SALTOKIEZ BIDE PUBLIKOA OKUPATZEA

**%2,4ko** igoera

Kontzeptua	Euro
------------	------

a) Baserriko barazkiak, eguneko (metro linealeko) 2,9m X 2 m-ko saltokia eguneko	0,76
b) Loreak, haziak eta eratorriak	4,70
c) Urdaiazpikoa, hestekiak oro har, gazta eta gurinak	18,90
d) Olibak, pepinilo eta antzekoak	11,90
e) Baserriz kanpoko barazkiak, hala nola baratxuri, patata, era guztietako fruta, meloi eta antzekoak	11,90
f) Fruitu lehorren, hala nola, mahaspasa, piku, ur, amanda eta antzekoak, eta arrautzen salmenta	11,90
g) Pastak, gailetak, konfitegia oro har	11,90
h) Txori, arrain, eta kortako animalia txikien salmenta, kaiolak, arraintokiak eta animalia horientzako elikagaiak	9,60
i) Zerri, behi eta zaldiak	4,70
j) Liburu, aldizkari, egunkari eta antzekoen salmenta	9,60
k) Kasete, disko eta antzekoen salmenta	16,75
l) Larrukiak, bisuteria, koadroak, jostailuak eta opariak	16,75
m) Nekazaritzako lanabesak eta antzekoak	4,70
n) Nekazal lanetarako erremintak eta tresnak	18,90
ñ) Alfonbrak, tapizak, koltxoiak, ehunak, arropak oro har	14,15
o) Oinetakoak	14,15
p) Sukaldeko tresnak, burdindegia, kristalak, paper pintatuak, aterkiak eta antzekoak	14,15
q) Botilaratutako edari eta likoreak	40,35
r) Sagardo eta txakolinak	22,40
s) Eskulanak eta artisautza	9,60
t) Kosmetika eta drogeria	16,75

## 2.5. UDALETXKO ARKUPEETAN LOREAK SALTZEKO SALTOKIAK "SANTU GUZTIEN EGUNA".

%2,4ko igoera

Kontzeptua	Euroak
Loreak saltzea eguneko	66,60

## 2.6 TELEFONIA MUGIKORREKO ENPRESEK JABARI PUBLIKOA OKUPATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

Ordenantzaren eranskina aldatzen da. Honela izango da:

Oinarrizko tarifa (telefonía mugikorreko operatzaileen artean banatua aprobetxamendu bereziak irauten duen denboraren arabera, eta operatzaile bakoitzari bere merkatu kuotaren arabera esleiki dakioken koefiziente berezia)	41.920 €
--	----------

Aurreko eranskinean ezarritako zerga oinarria kontuan hartuta, subjektu pasibo bakoitzari likidatuko zaio ekitaldi fiskal bakoitzaren kuota, Telekomunikazio Komisioak eman behar digun operadore bakoitzak duen ekitaldi fiskala horren merkatu-zatiaren datuen arabera.

*(azken paragrafoa da aldaketa, 2012a arte: 2012 urterako kuota horiek gehikuntza izango dute, Telekomunikazio Komisioak eman behar digun operadore bakoitzak duen merkatu-zatiaren datuen arabera)*



**3- ADMINISTRAZIO ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL JARDUERAK EGITEGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK:**

**3.1 AUTO-TAXI ETA GAINERAKO AKURA-IBILGAILUEN LIZENTZIA ETA BAIMEN ADMINISTRATIBOAK EMATEA**

%2,4ko igoera

<u>Kontzeptua</u>	
Auto-taxietarako lehen lizentzia	494,90
Auto-turismoen lehen lizentziak	494,90
Abonu eta zerbitzu berezi eta abonuetarako lehen lizentziak	494,90
Eman diren eta indarrean dirauten lizentzien transmisioak plaza kopurua bereizi gabe, gehi transmisioa egiten den diru kopuruaren gaineko %10a	989,75
Emandako lizentzia duten ibilgailuen ordezkapena	39,75
Ibilgailuen urteroko berrikustapenak	19,90
Gidari baimenak luzatzea	19,90

**3.2.- HIRIGINTZAKO LIZENTZIAK EMATEA**

%2,4ko igoera

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euro</u>
<b>Obrak egiteko lizentziak</b>	
600 € eta 12.000 € bitarteko aurrekontua duten obretarako lizentziak	70,25
12.001 € eta 30.000 € bitarteko aurrekontua duten obretarako lizentziak	257,55
30.001 € eta 100.000 € bitarteko aurrekontua duten obretarako lizentziak	708,15
100.001 €-tik gorako aurrekontua duten obretarako lizentziak	1.416,29
<b>Lehen erabilerako lizentziak:</b>	
Etxebizitza bakoitzeko	70,25
Merkataritza lokalak: eraikitako m <sup>2</sup> bakoitzeko	1,21
Hirugarren sektoreko erabilerako lokalak: eraikitako m <sup>2</sup> bakoitzeko	0,74
Garaje plaza bakoitzeko	14,64
500 m <sup>2</sup> edo gutxiagoko azalera duten industria bakoitzeko	354,05
500 m <sup>2</sup> -tik gorako azalera duten industria bakoitzeko	708,15
Lerrokadurak, fatxadako metro lineal bakoitzeko	8,04
Aurreko lizentziak luzatzea edo eskualdatzea, kuota likidoaren kopuruaren ehunekoaren arabera	%30a
Lurziketa/banatzea	211,90
Merkataritzarako lokala etxebizitza izatera aldatzeagatik edo alderantziz eskuratu beharreko lizentzia	211,90
Lur mugimenduak egiteko lizentzia	452,30

**3.3.- HIRIGINTZA GAIETAN LIZENTZIAK, BAIMENAK ETA ESPEDIENTEAK LUZATU ETA EMATEA**

%2,4ko igoera

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euro</u>
-------------------	-------------

Hirigintza kuotak kobratzea	2.065,80
Kontentsazio Batzordearen aldeko desjabetze espedientea	1.879,60
Udalari urbanizazioa lagatzea	6.110,60
Aurri espedientea	1.334,00
Planeamenduko elementuen aldaketa: Ogasun eta Ondare batzordeak kasu bakoitza aztertuko du, administrazio kostuaren balorazioaren txostena egin ondoren	

### 3.4 ESTABLEZIMENDUAK IREKITZEKO ETA INSTALAZIOAK EZARRI EDO ALDATZEKO LIZENTZIAK

%2,4ko igoera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra aldatzen duen 7/2012 barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Legearen VIII kapituluak dioenaren arabera

Kontzeptua	Euro
------------	------

#### 1. ALDEZ AURRETIK JARDUERA BAIMENA BEHAR DUTEN JARDUERA SAILKATUAK

<b>A) Jarduera berriaren lizentzia tramitatzea</b>	
1. Merkataritza eta zerbitzuetako lokalak	826,20
2. Nekazaritzako jarduerak	786,45
3. Abeltzaintzako jarduerak	786,45
4. Ostalaritza	826,20
5. Finantza erakundeen lokalak	3.250,00
6. Industri jardueretarako lokalak	1.081,20
7. Garaje jardueretarako lokalak (garaje plaza bakoitzeko)	30,00
<b>B) Jarduera legezkatzea, handitu edo aldatzea</b> Instalazioak legezkatzea, jartzea edo aldatzea (ur biltegiak, haize egokitua, etab.)	826,20
<b>C) Lokalen eskualdaketak edo titular aldaketak,</b> Jarduera berari eusten bazaio eta jarduera eta irekiera lizentziak indarrean dagoen legediaren arabera baldin badauzkate: lizentzian aldaketaren gai den jarduerari dagokion kopurua	%50

#### 2. ALDEZ AURRETIK KOMUNIKATU BEHARREKO JARDUERAK

<b>1. Jarduera berriaren</b>	
1. Merkataritza eta zerbitzuetako lokalak	480,90
2. Nekazaritzako jarduerak	458,30
3. Abeltzaintzako jarduerak	458,30
4. Ostalaritza	826,20
5. Finantza erakundeen lokalak	1.081,20
6. Industri jardueretarako lokalak	826,20
7. Garaje jardueretarako lokalak (garaje plaza bakoitzeko)	30,00

<b>2. Jarduera legeztatzea, handitu edo aldatzea</b>	458,30
<b>3. Lokalen eskualdaketak edo titular aldaketak, jarduera berari eusten bazaio eta jarduera eta irekiera lizentziak indarrean dagoen legediaren arabera baldin badauzkate</b>	
Lizentzian aldaketa den jarduerari dagokion kopurua	%50a

### 3.5 SUA ITZALTZEA ETA HERRI BABESERAKO ZERBITZUAK:

**%2,8ko** igoera

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euro</u>
Zerbitzu arduraduna, orduko	40,90
Zerbitzuko kideak, orduko	35,80
Motobonba, orduko	78,65
Mahukak, metroko	10,15
Hedapen handiko aparra isurtzea, erabilitako 20 kiloko bidoi bakoitzeko	223,15
Ibilgailua, orduko	11,80
Motozerra, orduko	4,10
Tresneria elektrogenoa, orduko	7,90
Eskailerak, erremintak, sokak eta abar, orduko	3,90

### 3.6 UDAL HILERRIAN ZERBITZUAK ETA EMAKIDAK GAUZATZEA.

#### ZERBITZU BAKANAK

<b>KONTZEPTUA</b>	€
b) Ehorzketa horma-hilobian edo panteoian	56,30
b) Ehorzketa gorpuzkinen kolunbarioetan	30,70
b) Desehorzketak	56,30
c) Horma-hilobien emakida, 10 urte arte	275,35
d) Haurren horma-hilobien emakida, 10 urte arte	146,75
e) 6 gizakiren gorpurentzat, horma-hilobi komun hileta-eskubidea ematea:	
- 5 urte arte	82,95
- 10 urte arte	132,10
Gehi hilarria jartzea, bakoitza	50,50
f) Ustelgabeko gorpuak: luzapena 5 urte	137,70

#### 2.) Gorpuen lekualdaketa

<b>KONTZEPTUA</b>	
a) lekualdatzea	120,85
b) gorpuzkinetarako kaxa	55,30

3.) Panteoietan barruko garbiketa, eta panteoietan edo hilobietan gorpuzkinak berriro kokatzea (hilobi bakar bat izanez gero eta lekualdaketa ez bada)

<b>KONTZEPTUA</b>	
a) gorpuzkin bat	81,90
b) 2 gorpuzkin	109,25
c) 3tik 10 gorpuzkin arte	145,05
d) 10 gorpuzkin baino gehiago	182,05

4) Gorpua gorputegian uzteagatik, egun bakoitzeko edo egun bat baino denbora gutxiagoko

<b>Kontzeptua</b>	
Kuota	41

5) Hileta eskubideak eskualdatzea

<b>Kontzeptua</b>	
3.1 Panteoi-eskubideak inter vivos eta mortis causa eskualdatzea	
• Gurasoak (1. gradua)	
- hobi bakarra	165,00
- hobi hirukoitza	330,00
- hobi handiagoak	495,00
• Aiton-amonak/bilobak /anai-arrebak (2. gradua)	
- hobi bakarra	330,00
- hobi hirukoitza	655,00
	925,00

- hobi handiagoak	
• Aiton-amonak/birbilobak eta beste ahaidetasun batzuk	
hobi bakarra	925,00
- hobi hirukoitza	1.535,00
- hobi handiagoak	2.560,00
3.2 Bestelako eskualdaketak (horma-hilobiak)	188,45

#### 6) Kapera/tenplu/espazio egokitua zeremonia partikularra egiteko erabiltzea

<b>Kontzeptua</b>	
Zeremonia bakoitza	62

#### 8) Lan administratiboa

<b>Kontzeptua</b>	
a) ziurtagiriak	6,15
b) tituluaren kopia	6,15

#### URTEKO ZERBITZUAK

##### 1.) Hilerria mantendu, zaindu eta garbitzeagatik

1. Panteoi-emakida bakoitzagatik, urteko	
- hobi bakarra	20,50
- hobi hirukoitza	30,70
- hobi handiagoak	51,20
2. Horma-hilobi edo lurreko hilobiren emakida bakoitzak, urteko	15,35
3. Hezurtegi edo kolunbarioaren emakida bakoitzak, urteko	7,20

### 3.7 SANEAMENDUKO ZERBITZUA

Estolderia zerbitzuarengatik ordaindu beharreko diru kopurua ur kontsumoagatik ordaindu beharreko zenbatekoaren %75ekoa izango da (zergak sartu gabe).

### 3.8 HONDAKINEN BILKETA

%2,4ko igoera

<b>ETXEBIZITZAK</b>			
<i>Zerbitzua</i>	<i>Asteko zerbitzua</i>	<i>Tarifa koefizientea</i>	<i>2013€/seihilekoa TARIFA</i>
Hiriguneko etxebizitzak	7	1	44,85
Hiriguneko etxebizitzak, autokonposta eginez gero	4	0,6	26,95
Landa eremuko etxebizitzak	7	0,7	31,40
Landa eremuko etxebizitzak, autokonposta eginez gero	4	0,42	18,85

<b>MERKATAL ESTABLEZIMENDUAK</b>						
<i>Asteko zerbitzua</i>					<i>2013 €/seihilekoa</i>	<i>Tarifa</i>
<i>Zerbitzua</i>	<i>Organikoa</i>	<i>Ontzi arinak</i>	<i>Pap/kart</i>	<i>Errefusa</i>	<i>Arrunta €</i>	
Sortzaile txikia (10 l. ontzia +gurpilik gabeko ontziak)	3	2	1	1	53,80	
Sortzaile txikia (10 l. ontzia + gurpilik gabeko ontziak) materia birziklagarria nahastua badago	3	2	1	1	53,80	
Sortzaile handiak (10 l. ontzia + ontziak gurpilekin)	3	2	2	1	147,90	
Sortzaile handiak (10 l. Ontzia + ontziak gurpilekin) materia birziklagarria nahastua badago	3	2	2	1	147,90	
Sortzaile handiak	3	2	2	1	193,65	
Sortzaile handiak materia birziklagarria nahastua badago	3	2	2	1	193,65	

Sortzaile handiak	4	2	2	1	322,75
Sortzaile handiak materia birziklagarria nahastua badago	4	2	2	1	322,75

### 3.9 UR HORNIDURA-

9.1. Ur hornidura: tarifak, lauhilabeteko zenbatzea.

- Zerbitzu-kuota finkoa.

Kuota hau ur hornikuntza zerbitzua abonatuaren eskura jartzeari dagokio, eta kontagailuaren kalibrearen arabera ezartzen da. Kuota uraren pasabide sekzioarekiko proportzionala da eta, horrenbestez, erabiltzaileak erabilgarri duen ur emariarekiko.

*Igoera %2,4koa da, 25 mm-ko kalibretik gorakoentzat ez-ezik, hauentzat %10eko igoera proposatzen baita.*

*Bestalde, proposatzen da tarifa bereziak etxeetako hornidurentzat, salbuespen batzuekin.*

Kontzeptua	Euro
Banakako kontagailua duten etxebizitzetako etxeko erabilera arrunterako hornidura. <u>Salbuespena:</u> ez zaie tarifa hau aplikatuko familia bakarreko etxebizitzetako (etxebizitza isolatuak, pareatuak eta atxikitakoak). Etxebizitza horiei kalibrearen arabeko tarifa aplikatuko zaie, hots, gainerako horniduren atalean ezarritako kalibrearen arabera.	12,50
Kontagailu orokorra duten etxebizitzetako etxeko erabilera arrunterako hornidura. Ordaindu beharreko kuota honela kalkulatu da: banako kontagailuaren tarifa bider finkan dauden abonatuaren kopurua. <u>Salbuespena:</u> ez zaie tarifa hau aplikatuko bizilagunen komunitateetako instalazio edota zerbitzu komunetarako kontagailu orokorrei (berogailuak, atarien garbiketa...). Horiei kalibrearen arabeko tarifa aplikatuko zaie, hots, gainerako horniduren atalean ezarritako kalibrearen arabera.	12,50
Gainerako hornidurak:	
13 mm-ko kalibrea	18,60
15 mm-ko kalibrea	21,35
20 mm-ko kalibrea	21,95
25 mm-ko kalibrea	30,15
30 mm-ko kalibrea	40,65
40 mm-ko kalibrea	52,50
50 mm-ko kalibrea	61,65
65 mm-ko kalibrea	108,10
*80 mm-ko kalibrea	140,95
*100 mm-ko kalibrea	200,25

\* kalibre hauek berriak dira, ur zerbitzuak eskatu du ezartzea tarifa berriak

- m<sup>3</sup>-ko kontsumo, erabiltzailearen eta zatien arabera bereiztu beharko da.

*Igoera %2,4koa da*

1.- Etxeetako hornidura, hiri-lurrean eta landa-lurrean (baserriak)

65 m <sup>3</sup> arte	0,55
65 m <sup>3</sup> baino gehiago	1,04

2.- Merkatal eta garajeetako hornidurak

35 m <sup>3</sup> arte	0,72
35 m <sup>3</sup> baino gehiago	1,19

3.- Ostalaritza, industria, eta zerbitzuetako hornidurak

65 m <sup>3</sup> arte	1,01
65 m <sup>3</sup> tik gora 600 m <sup>3</sup> ra bitartean	1,85
600 m <sup>3</sup> baino gehiago	2,23

4.- Eraikuntza, obra eta zundaketako jardueretako hornidurak

50 m <sup>3</sup> arte	1,59
50 m <sup>3</sup> baino gehiago	2,03

5.- Sute aurkako hornidurak

Zatirik gabe: 0,47 € x m<sup>3</sup> (estolderian salbuetsita)

6.- Jabadun finkak ureztatzeko eta igerilekuetako hornidurak.

500 m <sup>3</sup> arte	1,74
500 m <sup>3</sup> baino gehiago	2,19

7.- Udaletxeko eta bere Erakundeetako, Autonomiadunetako zein Patronatuetako hornidurak

Etxeetako kuota

65 m <sup>3</sup> arte	0,55
65 m <sup>3</sup> baino gehiago	1,04

8.- Ondoko taldeetako hornidurak: Ikastetxe, ospitale, anbulatorio (Osakidetzaren menpean dauden osasun zerbitzuak), hirugarren adineko egoitza, Udalak aitortutako Auzo Elkarte, eta Udalaren Intereserako elkarten erregistroan inskribatutako Elkarte, DYA eta Gurutze Gorria,

Etxeetako kuota

65 m <sup>3</sup> arte	0,55
65 m <sup>3</sup> baino gehiago	1,04

9.2 UDAL SAREAREKIKO HARTUNEAK



*%2,4ko igoera*

### 1.- Obra hartuneak

Obra hartunerako zein behin betikorako zenbateko berdinak eskatuko dira, eta, erabilitako kalibrearen arabera izango dira zenbatekoak horiek.

### 2.- Behin betiko hartuneak

#### 1.2 kalibre mota

Kalibre mota	Euro
15 mm-rainokoak	269,45
20 mm	323,35
25 mm	388,55
30 mm	499,55
40 mm	610,55
50 mm	721,55
60 mm	832,55
60 mm suterako	444,00
80 mm	999,10
80 mm suterako	499,55
100 mm	1.110,10
100 mm suterako	610,55

3.- Behin betiko hartuneak ordeztu edo handiagotzeagatik eskaturiko hartunearen prezioetik benetan ezarritako hartunean preziora dagoen tarte

---

### 9.3. SARERA LOTZEKO ESKUBIDEAK

*%2,4ko igoera*

Tasa hau ordaindu beharra sorraraziko da jabeek, lehen erabilera eman ondoren, bere ondasun higiezinerako ur hornidura eskatzen duenean, Udalaren Ur Zerbitzuko Araudian ezarritakoaren arabera.

Horrela, kontratua izenpetu aurretik, eskatzaileak tasaren autolikidazioa aurkeztu beharko du.

Kalibre mota	Euro
15 mm	86,20
20 mm	129,30
25 mm	194,25
30 mm	277,50
40 mm	388,55
50 mm	654,95
50 mm suterako	360,75
60 mm	832,55
60 mm suterako	455,15
80 mm	971,30
80 mm suterako	488,45
100 mm	1.165,60

100 mm suterako	582,80
-----------------	--------

#### 9.4. KONTAGAILUAK AZTERTZEA

*%2,4ko igoera*

Tasa hau ordaindu beharra sorraraziko du kontagailua egiaztatzeko eskaera eskatzen denean, erreklamazioak kudeatzeko garaian,. Kudeaketa hori honela egingo da:

- a) abonaturatutakoak erreklamazioa idatziz egin beharko du, eta erreklamazioari irtenbide egokia emateko bidezko jotzen dituenak adierazi beharko ditu. Hilabeteko epea dauka, gehienez ere, borondatezko ordainketa egiteko epea bukatzen denetik aurrera.
- b) Erreklamazioa aurkezten bada ere bilketa prozedura ez da etengo, salbu eta zerbitzua ematen duen enpresak lekuan bertan ur kontagailuren baten egiaztatze txostena egin behar izatea gertatuz gero. Hori gertatuz gero erreklamaziotegileak zerbitzuaren kostua ordaindu beharko du. Hauxe da:

Diametro	Euro
13 mm	43,10
15 mm	48,50
20 mm	53,90
25 mm	61,05
30 mm	66,60

#### 3.14. UZTAILEKO UDALEKUAK

*%2,4ko igoera*

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euro</u>
Kanpamendu irekien matrikula	94,70
Udako jardueren matrikula	94,70

#### 3.15 "HERNANIKO OSASUN ETA GIZARTE ONGINTZARAKO UDAL PATRONATUA" ERAKUNDE AUTONOMOKO ZERBITZUAK ERABILTZEA

##### 15.1. Zaharren Egoitza

Eusko Legebiltzarrak onetsitako Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak 18. artikuluan ezartzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzuak antolakuntzarako atalak direla, gizarte-zerbitzuetako erakunde batek kudeatzen dituela eta prestazio tekniko nahiz teknologiko batek edo gehiagok osatzen dutela. Zerbitzuak helburuen arabera, zerbitzu-hartzaileen ezaugarrien arabera, iraupenaren arabera edota ematen duten prestazio motaren arabera izan daitezke. Prestazio motak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Karteran zehazturik dagoen moduan beharko du izan.

Gizarte Zerbitzuen Lege horren xedea da, besteak beste, gizarte zerbitzuen alorrean Eusko Jaurlaritzari, foru aldundiei eta udalei dagozkien erantzukizunak zehaztea.

Lege horren III. Tituluak foru aldundiei egozten dizkie Bigarren Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuak, besteak beste, adinduentzako egoitza-zentroak eta eguneko zentroak.

Bigarren Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuen bidez adineko pertsoneri arreta ematea Gipuzkoako Foru Aldundiaren erantzukizuna denez, berari dagokio lurralde historiko honetako ekipamenduetara iristeko prozedura arautzeko ardura. Halaber, apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretuaren eta urriaren 10eko 43/2006 Foru Dekretuaren bidez berari egotzi zaio Hernaniko Santa Maria Magdalena Zaharren Egoitzara iristeko prozedura zehaztea. Dekretu horrek, gainera, horrelako egoitzetan sartu nahi dutenek bete behar dituzten eskakizunak zehazten ditu, baita egoitza horietan onartutakoekin egin behar duten ekarpen ekonomikoa ere, plaza mantentzearen.

Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuak, azkeneko prestazio mota horri dagokionez, zaharren egoitza bat dauka, beren egoera fisiko-psikikoagatik eta familia-ingurune egoki bat edo bizikidetzarako bestelako alternatibarik ez izateagatik, beren ingurune naturalean ezin mantendu daitezkeen pertsona helduei arreta osoa eskaintzeko.

Bestalde, aipatutako Lege horretako 57. artikuluan ezartzen da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Kartera osatzen duten prestazio eta zerbitzuen finantzaketan, doakoak ez direnetan, erabiltzaileek izango duten parte-hartzea kasuan kasuko prezio publiko edo tasek zehaztuko dutela, Lege honetan eta Lege honen garapeneko xedapenetan Euskal Autonomia Erkidego osorako ezartzen diren irizpideen arabera.

Horregatik guztiagatik, Zaharren Egoitza zerbitzuaren tasa honela arautuko da:

1. Xedea.

Eranskin honen xedea zaharren egoitzan dauden egoiliarrei ematen zaien zerbitzuari dagokion tasa arautzea, kudeatzea eta likidatzea da.

2. Kontzeptua.

Egoitzan dauden egoiliarrei emandako zerbitzutzat jotzen dira egoiliarrek Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuari atxikitako Santa Maria Magdalena Zaharren Egoitzan egiten duten egonaldian behar dituzten zerbitzuak.

3. Zaharren egoitzan hartuko diren pertsonak sailkatzea.

Ordenantza honen ondorioetarako, Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuari atxikitako Santa Maria Magdalena Zaharren Egoitzan onartzen diren egoiliarrek beren egoera fisiko-psikikoaren arabera sailkatuko dira honako kategoria hauetan:

Egoiliar gaituak.

Egoiliar ezinduak, ezintasun handikoak, psikogeriatrikoak eta soziosanitarioak.

Egoiliarrek beren egoera fisiko-psikikoaren arabera kalifikatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak adinduen ezintasun maila baloratzeko finkatuko duen arautegia erabiliko da.

Hasiera batean, zerbitzurako eskaria egin duen pertsona zerbitzuan onartu aurretik sailkatuko da eta; gero, hasiera batean egindako sailkapen horretako arrazoiak aldatu direla uste denean. Egoiliarraren sailkapen berriaren ondorioz hark ordaindu behar duen tasan aldaketarik sortzen bada, aldaketa atzeman den hilean hasiko da tasa berriari dagokiona ordaintzen.

4. Diru-sarrerak zehaztu eta kalkulatzeko.

a) Gaituak.

Ordenantza honen eraginetarako, egoitzan onartutako egoiliar bakoitzaren ahalmen ekonomikoa errentaren, ondarearen eta unitate familiarrean bizi diren kideen kopuruaren arabera kalkulatu da.

Errentatzat hartuko dira unitate familiarrek honako diru-iturrien bidez dauzkan diru-sarrera guztiak:

—Lanaren errendimendua, pentsioak eta gizarte aurreikuspenen emaitzak barne, edozein delarik ere horien erregimena.

—Kapital higikorren eta higiezinaren errendimenduak.

—Enpresari edo profesional bezala egindako jardueren errendimenduak.

Diru-iturri horien guztien balioa kalkulatzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan ezarritako arauak jarraituko dira.

Ondareztat joko da egoiliarrek daukan kapital higigarri guztia, eta horretarako, zerbitzua hartzen hasi baino lau urte lehenagotik zeukana baloratuko da. Kapital higigarri horren balioa kalkulatzeko, Ondarearen gaineko Zergan ezarritako arauak jarraituko dira.

Kapital higigarritzat joko dira kontu korranteetako eta epekako gordailu-kontuak, inbertsio fondoak eta pentsio fondoak, baita balore higagarriak, bizi aseguruak eta aldi baterako edo biziarteko aseguruak ere, hala nola arte-gaiak eta antigoalekoak. Bitxiak eta balioa duten beste gauza asko ere kontuan izango dira.

Kapital higieztzat joko dira landa eta hiriko izaera duten ondasunak.

Familia unitatetzat joko dira senar-emazteak eta beren kargura dauden adingabeak, baita adineko ezinduak ere, baldin eta horiek judizialki guraso-aginte luzatura edo egokitura lotuta badaude.

Ahalmen ekonomikoari buruz iruzur egiteak edo datuak ezkutatzek zerbitzua ematea eten dezake behin-behineko edo behin betiko.

b) Ezinduak, ezintasun handikoak, psikogeriatrikoak eta soziosanitarioak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak erabakitzen duena.

5. Tasaren zenbatekoa.

Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuari atxikitako Santa Maria Magdalena Zaharren Egoitzako egonaldiagatik ordaindu beharreko tasa egoiliarren sailkapenaren arabera zehaztuko da.

Hona hemen zaharren egoitzako tasak:

Egoiliar gaituak: 67,78 euro/egun.

Egoiliar ezinduak, ezintasun handikoak, psikogeriatrikoak eta soziosanitarioak: Gipuzkoako Foru Aldundiak erabakiko du ebazpen administratiboaren bidez egoiliar bakoitzak egin behar duen ekarpena.

Aipatutako tasa horiek %25 murriztuko dira plaza bat erreserbatzen denean. Arau horren ondorioetarako, erreserbatutako plazatzat joko da egoiliarrek egoitzatik kanpo aldi bateko egonaldia egin eta itzultzerakoan gordeta eduki behar dena, betiere arrazoiturik.

Honako hauek dira plaza erreserbatzeko eskubidea ematen duten egoitzatik kanpoko aldi bateko egonaldietarako arrazoiak:

Egoiliarra ospitaleratzea.

- Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuak ezinbestekotzat jotzen duen beste edozein gorabehera.

6. Egoiliarrek egingo duten diru-ekarpena:

a) Egoiliar gaituak.

Tasa era honetara ordainduko da:

1.- Egoiliar autonomoak.

Onuradunak ondare higiezina edo kapital higigarria badu, tasaren zenbateko osoa ordainduko du.

Tasa osoa ordaintzen ez duten egoiliarrek per capita diru-sarreraren %75 ordainduko dute. Per capita horretan sartuko dira aparteko ordainsariak, eta laugarren artikuluan zehaztu den familia unitatea hartuko da hori kalkulatzeko oinarritzat.

Nolanahi ere, Langileen Gutxieneko Soldataren %20 utziko da egoiliarraren eskura berak nahi duenerako.

Urtero-urtero egoiliarrek egiten duten ekarpena berrikusiko da, beren ordainketak errentekin batera eguneratzeko.

Dena den, zaharren egoitzako egoiliarrek eta, egoki balitz, beren legezko ordezkariak derrigorrez jakinaraziko diote Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuari beren errentan, ondarean eta familia unitateko kide-kopuruan aldaketarik egon bada, baita ordenantza honen aplikazioan eragina izan dezakeen beste edozein inguruabar ere. Egoiliarrak 30 eguneko epea izango du aldaketa horien berri emateko.

Tasa osorik ordaintzen ez denean, 9. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

2.- Egoiliar ezinduak, ezintasun handikoak, psikogeriatrikoak eta soziosanitarioak.

Egoitzako plaza Gipuzkoako Foru Aldundiak eta egoiliarrek finantzatuko dute, indarrean dagoen araudiarekin bat etorritzat.

7. Ordaindu beharra dutenak.

Egoiliarrak edo zerbitzua hartzen dutenak derrigortuta daude aurreko artikulua aplikatuta ateratzen diren zenbatekoak ordaintzera, betiere egindako egonaldiagatik edo plaza erreserbatzeagatik.

Hernanin erroldatuta ez daudenek, zaharren egoitzan onartzeko, beraiek erroldatuta dauden herriko udalaren Gobernu Batzordearen edo Osoko Bilkuraren onespena beharko dute. Jatorrizko udal horiek, Hernaniko zaharren egoitzara joateko baimena emateaz gain, beraiei dagokien tasa ordaintzeko konpromisoa hartuko dute subsidiarioki, egoiliarrek tasa osorik ordaintzen ez badute. Egoitzan onartu baino urtebete lehenagotik Hernanin erroldatuta ez dagoen adinduak okupatuko duen plazari aplikatuko zaion tasa benetako kostuaren baliokidea izango da, plaza hori Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatzen dituenetakoa ez bada.

8.Zorra onartzea.

Hernanin erroldatutako egoiliar gaituek zaharren egoitzan jasotzen dituzten zerbitzuei dagokien tasa osoa ordaintzen ez badute, diru-sarrera arrunt nahikorik eskuragarri ez dutelako, tasaren eta egoiliarrak ordaintzen duenaren arteko diferentzia izango dute zorretan Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuarekin. Zor hori onartzen dutela egiaztatzeko, agiri bat sinatuko dute Udal Patronatuaren alde, notarioren bat lekuko.

9. Galdagarritasuna.

Oro har, ordaintzeko obligazioa dutenei galdatuko zaie egonaldiari dagokion tasaren zenbatekoa, hilabete bakoitzaren lehen egunetik edo, hala dagokionean, egoiliarra egoitzan onartu den lehen egunetik. Tasa Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuak agintzen duenaren arabera ordainduko da. Hala ere, arau horrek ez du adierazten kobratu beharrekoa oso-osorik edo zati batean aurreratzea edo aurretiaz gordailuan uztea eskatu ezin denik.

10.Kudeatzea, likidatzea eta kobratzea.

Eranskin honetan arautzen diren tasak urteko hilabete bakoitzaren amaieran likidatu eta kobratuko dira. Tasa horiek ordaintzeko modua tasa kobratzeko eskuduntza duen erakundeak erabakiko du.

## 15.2. Eguneko Zentroa

Eusko Legebiltzarrak onetsitako Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak 18. artikuluan ezartzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzuak antolakuntzarako atalak direla, gizarte-zerbitzuetako erakunde batek kudeatzen dituela eta prestazio tekniko nahiz teknologiko batek edo gehiagok osatzen dutela. Zerbitzuak helburuen arabera, zerbitzu-hartzaileen ezaugarrien arabera, iraupenaren arabera edota ematen duten prestazio motaren arabera izan daitezke. Prestazio motak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Karteran zehazturik dagoen moduan beharko du izan.

Gizarte Zerbitzuen Lege horren xedea da, besteak beste, gizarte zerbitzuen alorrean Eusko Jaurlaritzari, foru aldundiei eta udalei dagozkien erantzukizunak zehaztea.

Lege horren III. Tituluak foru aldundiei egotzen dizkie Bigarren Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuak, besteak beste, adinduentzako egoitza-zentroak eta eguneko zentroak.

Bigarren Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuen bidez adineko pertsonen arreta ematea Gipuzkoako Foru Aldundiaren erantzukizuna denez, berari dagokio lurralde historiko honetako ekipamenduetara iristeko prozedura arautzeko ardura. Halaber, apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretuaren eta urriaren 10eko 43/2006 Foru Dekretuaren bidez berari egotzi zaio Hernaniko Santa Maria Magdalena Eguneko Zentroa iristeko prozedura zehaztea. Dekretu horrek, gainera, horrelako zentroetan sartu nahi dutenek bete behar dituzten eskakizunak zehazten ditu, baita zentro horietan onartutakoek egin behar duten ekarpen ekonomikoa ere, plaza mantentzearen.

Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuak eguneko zentro bat dauka laguntza behar duten adineko pertsonen beharrei erantzuteko, hain zuzen, egoitza batean sartzeko beharra izan gabe, ohiko bizilekuan behar bezala eman ezin diren berariazko zainketak behar dituztenei erantzuteko. Zentro honen bidez, gainera, adinekoaren familiarik ere laguntzen zaio, familiarikoa kideek lan eta gizarte arloko bizitzarekin jarrai dezaten ahalbidetzen baita.

Bestalde, aipatutako Lege horretako 57. artikuluan ezartzen da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Kartera osatzen duten prestazio eta zerbitzuen finantzaketan, doakoak ez direnetan, erabiltzaileek izango duten parte-hartzea kasuan kasuko prezio publiko edo tasek zehaztuko dutela, Lege honetan eta Lege honen garapeneko xedapenetan Euskal Autonomia Erkidego osorako ezartzen diren irizpideen arabera.

Horregatik guztiagatik, Eguneko Zentroko zerbitzuaren tasa honela arautuko da:

1. Xedea.

Eranskin honen xedea Eguneko Zentroan dauden erabiltzaileei ematen zaien zerbitzuari dagokion tasa arautzea, kudeatzea eta likidatzea da.

2. Eskaintzen diren zerbitzuak.

A) Eguneko banakako atentzioa. Erabiltzaileei emandako zerbitzutzat jotzen dira erabiltzaileek Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuari atxikitako Santa Maria Magdalena Eguneko Zentroan egiten duten egonaldian behar dituzten zerbitzuak.

Eguneko zentroak bi zerbitzu eskaintzen ditu:

1.- Astegunetan, astelehenetik ostiralera.

2.- Asteburuetan eta jaiegunetan.

B) Eguneko zentroan ohikoak ez diren erabiltzaileei eskaintzen zaizkien beste zerbitzu gehigarri batzuk: otorduak.

1. Gosaria.

2. Bazkaria.

3. Merienda.

4. Afaria.

3. Eguneko zentroan hartuko diren pertsonak sailkatzea.

A) Eguneko banakako atentzioa.

Ordenantza hau aplikatzearen ondorioetarako, Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuari atxikitako Santa Maria Magdalena Eguneko Zentroan onartzen direnak, beren egoera fisiko-psikikoaren arabera, mendeko erabiltzaile gisa sailkatuko dira.

Egoiliarak beren egoera fisiko-psikikoaren arabera kalifikatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak adinduen ezintasun maila baloratzeko finkatu duen arautegia erabiliko da.

Hasiera batean, zerbitzurako eskaria egin duen pertsona zerbitzuan onartu aurretik sailkatuko da eta, gero, hasiera batean egindako sailkapen horretako arrazoiak aldatu egin direla uste denean. Erabiltzailearen sailkapen berriaren ondorioz hark ordaindu behar duen tasan aldaketarik sortzen bada, aldaketa atzeman den egunetik hasiko da tasa berriari dagokiona ordaintzen.

B) Otorduak.

Udal gizarte zerbitzuek txostena egin behar dute.

4. Tasaren zenbatekoa.

A) Eguneko banakako atentzioa.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikarako Departamentuak erabakiko du, ebazpen administratibo baten bidez, erabiltzaile bakoitzak ordaindu behar duen zenbatekoa.

Tasa horiek %25 murriztuko dira plaza bat erreserbatzen denean. Arau horren ondorioetarako, erreserbatutako plazatzat joko da egoiliarak egoitzaik kanpoan aldi bateko egonaldia egin eta itzultzerakoan gordeta eduki behar dena. Nolanahi ere, egoiliarak aldi baterako kanpora joan behar duenean aldeztu aurretik zuriu behar du.

Honako hauek dira plaza erreserbatzeko eskubidea ematen duten egoitzaik kanpoko aldi bateko egonaldiatarako arrazoiak:

Egoiliarra ospitaleratzea.

Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuak ezinbestekotzat jotzen duen beste edozein gorabehera.

B) Otorduak:

1. Gosaria: 1,75 euro.

2. Bazkaria: 3,75 euro.

3. Merienda: 1,35 euro.

4. Afaria: 2,50 euro.

5. Ordaindu beharra dutenak.

Ordenantza honetan finkatu diren zenbatekoak ordaindu beharra daukate bertan aipatzen diren zerbitzuak jasotzen dituzten guztiek.

6. Galdagarritasuna.

Oro har, ordaintzeko obligazioa dutenei galdatuko zaie egonaldiari dagokion tasaren zenbatekoa, hilabete bakoitzaren lehen egunetik edo, hala dagokionean, egoiliarra zerbitzua jasotzen hasi den lehen egunetik. Tasa Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuak agintzen

duenaren arabera ordainduko da. Hala ere, arau horrek ez du adierazten kobratu beharrekoa oso-  
osorik edo zati batean aurreratzea edo aurretiaz gordailuan uztea eskatu ezin denik.

7. Kudeatzea, likidatzea eta kobratzea.

Eranskin honetan arautzen diren tasak urteko hilabete bakoitzaren amaieran likidatu eta kobratuko  
dira. Tasa horiek ordaintzeko modua tasa kobratzeko eskuduntza duen organismoak erabakiko du.

15.4. Zaharren Egoitzako ekitaldi aretoa erabiltzea

A.- Lanegunak: astelehenik ostiralera:

I. epigrafea. Ekitaldi aretoa erabiltzea ikus-entzunezko materialik gabe ..... 29,63

II. epigrafea. Ekitaldi aretoa erabiltzea ikus-entzunezko materialarekin ..... 58,01

B.- Asteburu eta jaiegunak:

I. epigrafea. Ekitaldi aretoa erabiltzea ikus-entzunezko materialik gabe ..... 33,38

II. epigrafea. Ekitaldi aretoa erabiltzea ikus-entzunezko materialarekin ..... 66,71

15.5. Etxez etxeko laguntza zerbitzua

A.- Lanegunak: astelehenetik ostiralera: Gipuzkoako Foru Aldundiak 2013. urterako finkatzen duen  
tasa.

B.- Asteburu eta jaiegunak: Gipuzkoako Foru Aldundiak 2013. urterako finkatzen duena.

### 3.16 HERNANIKO UDAL KIROLDEGIKO ZERBITZUAK ERABILTZEA

Igoera %2,40koa izango da.

a) Kiroldegian hamabi hilabeterako abonaturakoak ordaindu beharreko kuota

Familiak	226,00 €
Banakakoak	149,60 €
Adingabeak	93,80 €
Kirolari federatuak	18,00 €

b) Kiroldegian sei hilabeterako abonaturakoak ordaindu beharreko kuota

Familiak	146,90 €
Banakakoak	97,10 €
Adingabeak	61,00 €

f) Kanpoko kirol instalazioak erabiltzeko ordaindu beharreko kuota (hitzarmena)

Kirolari federatuak	18,00 €
---------------------	---------



g) Erabiltzaileentzako zerbitzuak

	Abonatuak
Sauna, 1 saio	3,50 €
Sauna, 5 saio	15,50 €
Sauna, 10 saio	27,50 €
Squasha, 1 saio	4,90 €
Squasha, 5 saio	20,00 €
Squasha, 10 saio	34,70 €
Pilotalekua, 1 ordu	10,90 €
Pilotalekuko argia, 1 ordu	6,00 €
1. pista	37,80 €
2. pista	32,30 €
Igerilekuko kale bat	32,30 €
Kaiolako giltza puskatzea	78,00 €
Takilako giltza galtzea edo puskatzea	4,90 €
Txartela galtzea edo puskatzea	3,20 €
1	

Abonatu gabekoak

Adingabearentzako sarrera	3,60 €
Adindunarentzako sarrera	5,60 €
Sauna, 1 saio	3,50 €
Squasha, 1 saio	4,90 €
Pilotalekua, 1 ordu	10,90 €
Pilotalekuko argia, 1 ordu	6,00 €
1. pista	37,80 €
2. pista	32,30 €
Igerilekuko kale bat	32,30 €
Kaiolako giltza puskatzea	78,00 €
Takilako giltza galtzea edo puskatzea	4,90 €
Txartela galtzea edo puskatzea	3,20 €

k) Igeriketako txanoak

Ehunezko bainu-txanoa	2,90 €
Silikonazko bainu-txanoa	4,30 €

l) Kiroldetik instalazioak alokatzeko prezioak: ikuskizunetarako, kirolez kanpoko emanaldietarako edo maila profesionaleko kirol ekitaldietarako:

Pilotalekua edo kirol pista orduko

Astegunetan, 22:00ak arte	95,80 €
Astegunetan, 22:00etatik 06:00etara	148,30 €
Igande edo jaiegunetan 22:00ak arte	108,40 €
Igande edo jaiegunetan, 22:00etatik 06:00etara	165,70 €
Aparteko orduak	220,60 €
Fidantza	1779,50€

- o Alokatzeko eskaera egitean hitzartutako orduak baino gehiago irauten badu ekitaldiak, ordu bakoitzarengatik edo gaingaitutako ordu-zatiagatik 220,60 € ordaindu behar du

antolatzaileak.

- o Antolatutako ikuskizunetan, kirolez kanpoko ekintzetan edo kirol ekintza profesionaletan, publizitatearengatiko, irudi-eskubideengatiko edo sarrera salmentarengatiko diru-sarrerarik balego, bildutako diru-kopuruaren %10 ordaindu behar da.
- o Pilotalekua edo instalazioak behar bezala erabiliko direla bermatzeko 1.779,50 euroko fidantza ordaindu behar da.
- o Fidantza hori udal kiroldegiko bulegoetan ordaindu behar da, dena delako ikuskizuna edo ekintza egin baino lehen, legeak agindutako eran.
- o Ordaindu beharreko guztia ordaindu eta kirol zuzendariaren aldeko txostena jaso ondoren itzuliko da fidantza.
- o Irabazi asmorik gabeko elkarteek eskatzen edo antolatzen dituzten ekitaldietan, ekitaldiak berak irauten duen denbora baino ez dute ordaindu beharko antolatzaileek: esan nahi da tarifyan ez duela eraginik izango ekitaldia antolatu ahal izateko muntatzeko edo desmuntatzeko behar den denborak.

### 3.17 POTENZIALKI ARRISKUTSUAK DIREN ANIMALIAK UDAL ERREGISTROAN INSKRIBATZEA

**%2,4ko** igoera

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euro</u>
Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak Udal Erregistroan inskribatzea eta arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeagatik baimena emateagatik edo berritzeagatik	69,95

### 3.18 - DOKUMENTUAK ETA BESTE MATERIAL BATZUK.

**%2,4ko** igoera

#### 1.- Udaltzaingoaren zerbitzuak

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euro</u>
Atestatuen kopia	19,20
Karabinak baimentzea	7,90
Hainbat txostenen kopia	7,90
Istripuen adostasuneko txostenen kopia	7,90
Trafikoko Istripuen atestatuen kopiak	81,35

#### 2.- Fotokopiak

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euro</u>
DIN A4 (bakoitzeko)	0,11
DIN A3 (bakoitzeko)	0,22
DIN A2 (bakoitzeko)	0,42
DIN A0 (bakoitzeko)	3,13
DIN A1 (bakoitzeko)	1,62
Kopia paper orrian (m <sup>2</sup> )	3,12
Bidaltzeagatik errekgua	5,54
Informatika zerrendak, bakoitzak	4,63

#### 3.- ERREPOGRAFIA ZERBITZUA

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euro</u>
-------------------	-------------

Irudi digitalizatua	0,74
Internet bidez bidalitako irudia (<100 kb)	0,74
100 kb gehiagorengatik, bakoitzarengatik	0,38
Zuri beltzean inprimatutako orria	0,09
Koloretan inprimatutako orria	0,12
Koloretan inprimatutako irudia	0,76
Argazki paperean inprimatzea	0,76
Disketean ematea	0,76
CD-ROMean ematea	3,75

### 3.19 SUSTATZAILE PARTIKULARRAK UDALAREN KARTOGRAFIA EGUNERATZEAGATIK

**%2,4ko** igoera

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euro</u>
Urbanizazio proiektuak (ondoriozko azalera publikoa neurtzea)	
Lehengo hektarea edo zatia	1.043,55
Handik aurrerako bakoitza	646,55
Obra handiak egiteko lizentziak, eraikuntza berriko eraikinentzat emanak	
Lehengo hektarea edo zatia	1.043,55
Handik aurrerako bakoitza	646,55
Obra handiak egiteko lizentziak, kartografia aldatzea ekarriko duten eraisketak egiteko emanak	
Lehengo hektarea edo zatia	646,55
Handik aurrerako bakoitza	646,55
Obra handiak egiteko lizentziak, fatxadaren lerroak edo bide publikoari nolabait eragiten dioten eraikin eraberritzeak egiteko emanak	646,55
Obra handiak egiteko lizentziak, eraikinak altxatzeko emanak	231,30
Obra handiak egiteko lizentziak, eraikinak handitzeko emanak	347,50
Obra handiak egiteko lizentziak, gero eraikuntza lizentziarik eskatuko ez duten lur mugimenduak egiteko emanak	348,10
Obra handiak egiteko lizentziak, jolas lekuak, aisialdiko tokiak edo antzekoak estaltzeko emanak	168,80
Obra handiak egiteko lizentziak, zuinetak egiazatzeko ekipo topografikoa beharrezkoa duten obra handietarako lizentziak	356,80

#### **4. IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOETAN IBILGETU, BERTATIK JASO ETA ONDOREN ZAINZAPEAN EDUKITZEKO ZERBITZU PUBLIKOAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA**

**%2,4ko** igoera

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euro</u>
a) Ibilgailua erretiratzea	
Bizikletak eta ziklomotoreak, bakoitzarengatik	12,30
Motozikletak, trizikloak, moto-karroak eta antzeko beste ibilgailuak, bakoitzarengatik	24,80
Turismoak eta 3.499 kg-ko tara arteko ibilgailuak, bakoitzarengatik	80,20
Kamionetak, kamioiak, traktoreak, erremolkeak, autobusak eta 3.500 kg-ko taratik gorako tonajea duten ibilgailu bakoitzarengatik	169,50
b) Erretiratutako Ibilgailuen depositua eta zaintza	
Bizikletak eta ziklomotoreak, egun edo zatiki bakoitzarengatik	5,40
Motozikleta, trizikloak, moto-karroak eta antzeko bestelako ibilgailuak, egun edo zati bakoitzarengatik	8,60
Turismoak eta 3.499 kg-ko tara arteko tonajea duten ibilgailuak, egun edo zati bakoitzarengatik.	16,15
Kamionetak, kamioiak, traktoreak, erremolkeak, autobusak eta 3.500 kg-ko taratik gorako tonajea duten ibilgailuak, egun edo zati bakoitzarengatik	34,40

#### **5.- ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL JARDUERAK BURUTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK**

##### **5.1.- IBILGAILUAK ESPALOIETAN ZEHAR FINKEN BARRUALDERA SARTZEA ETA HORIEK BIDE PUBLIKOAN DUTEN APARKAMENDU ERRESERBA**

**%2,4ko** igoera

<u>Kontzeptua</u>	<u>Euroak</u>
a) Udal jabetzako hesiak erabiltzea:	
Hesi metalikoak, unitateko eta eguneko	0,41
Oholesiak, unitateko eta gehienez ere 5 egunetarako (5 eguneko epea gaindituz gero: 2,30 € gehiago unitateko eta eguneko)	11,52
b) Udal zapalgailua erabiltzea, orduko	37,12
c) Desataskatzeko kanabera eta mahukak, unitateko eta eguneko	
Desataskatzeko kanaberek	0,31
Mahukak	4,66
d) Udal kamioi-garabia erabiltzea (gidari eta guzti) orduko	84,48
e) Udal dunperra erabiltzea orduko	21,09
f) Udal oholtza alokatzea:	
100 m <sup>2</sup> -ko oholtza eguneko	280,17
25 m <sup>2</sup> -ko oholtza eguneko	57,75
Oholtza estalia, gehienez ere 5 egunez (5 eguneko epea gaindituz gero: 420 € gehiago eguneko)	3.478,07
g) Bandexa bibratzailearen errenta, orduko	15,92

--	--

## 5.2 IKUSKIZUNETARAKO SARRERAK

### A) URTEROKO ZIKLOAK

• Haurrak.....	2,70 €
• Helduak.....	7 €
• Helduak, 3 eguneko bonoa.....	16,50 €

### B) ZINEA

• Haurrak.....	2,70 €
• Helduak.....	4,00 €

Bigarrena.- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Ordenantzaren 8 artikulua aldatzea, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

1. Ondasun higiezinak etxebizitza erabilera dutenean, eta subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoitza ez direnean –hirugarrenen kasuan errentamenduz edo lagapen bidez-, **errekargua aplikatuko da** ordenantza honetako eranskinean jasota dagoen zergaren kuota likidoaren gainean.
2. Errekargua zerga honen subjektu pasiboari exijituko zaie, haren sortzapena zerga sortzen den une berean gertatuko da, eta urtero likidatuko da, kuotarekin batera.
3. Errekargu hau aplikatzearen ondorioetarako, katastroaren arabera etxebizitza gisa erabiltzekoak diren lokalak etxebizitza erabilera duten ondasun higiezinak hartuko dira. Etxebizitzaren eranskinak barruan sartuko dira, finka erregistral bakarra osatzen dutenean.
4. Ondorio horietarako ere, presuntzio egingo da etxebizitza erabilerako ondasun higiezin bat ohiko egoitza dela baldin eta, zergaren sortzapen egunean, hura kokaturik dagoen udalerriko erroldan egiaztatu badago bertan bizi den/direnen ohiko bizilekua dela.
5. Bizileku erabilerako ondasun higiezinaren titulartasuna Administrazio publiko batena bada aski izango da Administrazio horrek aurkeztutako deklarazioa, ondasun higiezinak egiaz bizilekutarako direla jotzeko. Udalak, hala ere Administrazio titularrari errekeritu ahalko dio egiazta dezala ondasun higiezinaren horiek bizilekutarako direla.
6. Ez zaie errekargua aplikatuko Udalaren eta haren erakunde autonomoen jabetzako etxebizitzetzi.
7. Egiazko ohiko bizileku ez diren bizileku erabilerako ondasun higiezinak salbuetsita egongo dira errekargu hau aplikatuzetik, artikuluko honetan ezarritako baldintzetan, baldin inguruabar hauetakoren bat betetzen badute:
  - 7.1 Beste herri batean erroldatuta dauden pertsonen alokatutako etxebizitzak, betiere Gipuzkoan ikasten ari badira. Zerga honen subjektu pasiboak ekarri beharko ditu alokairuaren kontratua eta maizterren ikasketen buruzko matrikula.
  - 7.2 Ostatu emateko jarduerari, pentsioei, hostalei... atxikitako ondasun higiezinak, eta, modu jarraituan lanbide nahiz merkataritza jardueretako direnak. Nahitaezkoa izango da higiezinaren katastroko titularraren izatea, edo, hala badagokio, jardueraren titularrari errentan

emateko kontratu bat izatea, urtebetekoa edo luzeagoa; eta, garatutako jarduera ekonomikoaren zergaren agiria ekartzea.

7.3 Bere helburuen artean ondasun higiezinaren errentan ematearena duen erakunde publiko baten esku jarritakoak.

7.4 Eraiki duten promotoreen izenean dauden etxebizitzak. Salbuespena mantenduko da obra berria egin eta gehienez 2 urtez.

7.5 Batuta dauden etxebizitzak, nahiz eta jabetza erregistroan bi finka izan eta bi ordainagiri eduki, baina ondasunen jabea bakarra izan behar da.

Udalak egiaztatu ahal izango ditu interesatuak emandako datuak, iruzurrak saihesteko.

#### **ERANSKINA:**

2. Errekargua: %50a

Hirugarrena.- Jarduera ekonomikoaren gaineko Zergaren Ordenantzaren 9 artikulua aldatzea (paragrafo berri bat gehitzen zaio), 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

5) Dagokion kuotaren % 5, 10 edo 20koa, hurrenez hurren, udal kuotako zergak ordaintzen dituzten subjektu pasiboentzat, baldin 2.000.000 eurotik beherako negozio zifra (zenbateko garbia) badute, eta baldin hobaria aplikatzeko den zergaldiaren aurre-aurerako zergaldian kontratu mugagabeko langileen batez bestekoa handitu badute, zergaldiaren aurrekoaren aldean.

Hobaria honela aplikatuko da:

a') Kuotaren % 5, langileen gehikuntza % 5 izan bada.

b') Kuotaren % 10, langileen gehikuntza % 10 izan bada.

c') Kuotaren % 20, langileen gehikuntza % 20 izan bada

Laugarrena.- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga Ordenantzaren 8. artikulua indargabetzea, eta ordenantzaren eranskinaren zerga-kargak ezartzeko 3. araua aldatzea 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

1. Ordenantzaren 8. artikulua aldatzea, indargabetzen baita 2012. urtera arte indarrean egon den azken paragrafoa. Horrela izango da:

8. Artikulua.

Oinarri ezargarriari Eranskinean adierazten den karga tasa aplikatuz aterako da zerga honen kuota.

*Zergaren kuota osoari edo hobaridunari murriztu egingo zaio dagokion eraikuntza, instalazio edo obraren hirigintza baimena jasotzeagatik subjektu zergadunak ordaindu duen edo behar duen zenbatekoa\*\*derogatuta*

2. Ordenantzaren eranskinaren zerga-kargak ezartzeko 3. araua aldatzea:

2. Obra handia eta obra txikia bereizteko, indarrean dagoen udal hirigintza-araudia kontuan hartuko da.

Bosgarrena.- Hirilurren Balioaren Gehikuntzaren Zergaren Ordenantzaren 6. artikulua aldatzea (subjektu pasiboen arautzailea), bi paragrafo gehitu zaizkiolako 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

3. Lurrak ohiko etxebizitzaren hipoteka betearazteagatik eskualdatzen direnean, haiek eskuratzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa, edo Zergen Foru Arau Orokorreko 35.3 artikuluan aipatzen den entitatea hartuko da zergadunaren ordezkotzat subjektu pasibotzat.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuetan, ordezkotzak ezingo dio zergadunari exijitu ordaindutako obligazio tributarioaren zenbatekoa.

Apartatu honetan aurreikusitako ondorioetarako, ohiko etxebizitzat hartuko da abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 90.8 artikuluan halakotzat definitutakoa.

4. Martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-Dekretuak, baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriei buruzkoak, 2. artikuluan ezarritakoan sartzen diren zordunek euren etxebizitza zorren ordainez emateagatik egindako eskualdaketetan, ondasun higiezin eskuratzen duen entitatea izango da zergadunaren ordezkotzat subjektu pasiboa, eta ordezkotzak ezin izango dio zergadunari exijitu ordaindutako zerga obligazioen zenbatekoa.

Seigarrena.- Administrazio zerbitzuak eskaini edo Udal Jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko Tasaren Ordenantzaren 7-3 . 1, 2 eta 5 apartatuak aldatzea, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

## **7. artikulua**

3. Elkarbizitza-unitatearen diru-sarrerak: definizioa

3.1.- Ondasun higiezin bati eragiten dioten edo ondasun higiezin batekin zerikusi zuzena duten zerbitzuak emateagatik ordaindu beharreko tasen kasuan, eskatuko dira etxebizitza horretan erroldatuta dauden guztien bizikidetzaren unitatearen kideen diru-sarrerak

3.2.- Ondasun higiezin batekin zerikusi zuzena ez duten zerbitzuak emateagatik ordaindu beharreko tasen kasuan, eskatuko dira onura fiskalaren eskaera egilearen bizikidetzaren unitatearen kideen diru-sarrerak

5. Bizikidetzaren unitatea:

5.1. Honako pertsonak edo pertsona-taldeak hartuko dira bizikidetzaren unitatetzat:

a) Etxebizitza edo bizileku batean bakarrik bizi diren pertsonak, eta talde horretatik kanpo geratuko dira, bakarrik bizi izanda ere, haiekin ezkontza bidez edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkorra duten pertsonak, honako kasu hauetan izan ezik:

1. Banantzeko edo dibortziatzeko edota izatezko Bikoteen Erregistroan baja hartzeko izapide judizialak hasita daudenean.

2. Etxeko indarkeriaren biktimak direnean, banantzeko edo dibortziatzeko izapide judizialak hasi ez badituzte ere, betiere zirkunstantzia hori dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren

aldeko gizarte-txosten bidez justifikatzen bada eta izapide horiek urtebeteko epean hasten badira, izatezko banantze-egunetik zenbatzen hasita.

3. Etorkinak direnean, eta haien ezkontidea edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkorra duen pertsona estatuko lurraldean bizi ez denean, betiere dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren aldeko gizarte-txosten bat dagoenean.

b) Etxebizitza edo bizileku berean elkarrekin bizi diren bi pertsona edo gehiago, elkarren artean ezkontzaren bidez edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkorra dutenean, edo laugarren mailarainoko odol-ahaidetasunagatik edo bigarren mailarainoko ezkon-ahaidetasunagatik, edo familia-harrerako harreman iraunkor batengatik edo adopzio aurreko edo tutoretzapeko harreman batengatik batuta daudenean.

5.2.- Are artikuluko honetako 1.b paragrafoan aurreikusitako loturetakoren bat daukaten pertsonen bizilekuan integratzen badira ere, bizikidetzaren unitate gisa hartuko dira honako hauek:

a) Zahartzaro, baliaezintasun edo alargun pentsio kotizaziodun edo kotizaziorik gabekoen onuradunak, bai eta haien ezkontideak edo haiekin ezkontzaren antzeko harreman iraunkorra duten pertsonak, eta ekonomikoki haien mendeko diren pertsonak. Aurrekoaren ondorioetarako, lehenengoetik ekonomikoki mendekotzat hartuko dira inolako diru-baliabiderik ez duen pertsona bakar bati dagokion Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarrizko Errentaren zenbatekoa baino diru-sarrerara konputagarri handiagoak ez dituzten pertsonak, honako hauek salbuetsita: lan egiteagatik edo osagarriak izan daitezkeen pentsioetatik datozen diru-sarrerak lortzen dituzten pertsonak.

b) Etxeko tratu txarren biktima izanda, beren ohiko bizilekua utzi duten pertsonak, baita haien seme-alabak ere, izanez gero; bakarrik bizi diren pertsonen kasuan, harrera egiten duen bizikidetzaren unitate gisa bereizitako bizikidetzaren unitate gisa izatearekin gehienez ere hamabi hilabetez jarraitu ahal izango da, eta ezohiko kasuetan beste hamabi hilabetez luzatu ahal izango da.

c) Beren ohiko etxebizitza utzi behar izan duten pertsonak, banantze edo dibortzio baten ondorioz edo izatezko batasun bat desgitearen ondorioz edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak muturrekotzat jotako egoeraren baten ondorioz.

Aurrekoaren ondorioetarako, muturreko egoeratzat hartuko dira etxebizitza bat-batean galtzea etxebizitzatik kaleratzearen ondorioz, hondamendi baten ondorioz edota etxebizitzaren ordaintzari aurre egiteko ezintasun nabarmenaren ondorioz, betiere egoera horiek eskatzaileari egozgarriak ez badira.

Bizikidetzaren unitate gisa izarari gehienez ere hamabi hilabetez eutsi ahal izango zaio, eta ezohiko kasuetan beste hamabi hilabetez luzatu ahal izango da.



5.3. Udalak bizikidetzaren unitate kasu edo suposizio berriak definitu ahal izango ditu gizarte-bilakaeraren arabera, eta bereziki, familia-egiturako ereduaren arabera. Zentzu horretan, baloratuko da eskaera egileen eta beraiekin bizi direnen ekonomikoki mendekotasuna eta unitate hartzailearen eta hartu dituzten pertsonen artean diru bidezko traturik ez dagoenean.

Zazpigarrena.- Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriari buruzko Ordenantza fiskalen artikulua indargabetzea, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

#### 1. Ondasun higiezinaren gaineko zergaren 6. artikulua

1.- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergatik salbuetsita geratuko dira, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriari buruzko apirilaren 7ko 3/2004 FORU ARAUAK arautzen dituen entitateen ondasunak; ez dira salbuetsita geratuko, halere, Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita gabeko ustiapen ekonomikoei atxikitako ondasunak.

Salbuespen hau aplikatzeko, beharrezkoa izango da irabazi asmorik gabeko entitateak jakinaraztea dagokion Udalarari, edo Gipuzkoako Foru Aldundiari, 3/2004 Foru Arauaren 16.1 artikulua arautu den aukera gauzatu duela, bai eta Foru Arau horren II Tituluan arautu den zerga erregimen bereziko betebeharrak eta baldintzak betetzea ere.

2.- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergatik salbuetsita geratuko dira Euskaltzaindia, Espainiako Institutua eta haren barneko erret akademiak eta Euskaltzaindiaren antzeko helburuak dituzten autonomia erkidegoetako instituzioak, artikulua honek 1. apartatua araututako baldintzen arabera.

3.- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergatik salbuetsita geratuko dira Gurutze Gorria eta horrekin pareka daitezkeen beste entitateak, erregelamenduz zehaztuko direnak, eta Espainiako Itsuen Erakunde Nazionala artikulua honek 1. apartatua araututako baldintzen arabera

#### 2. Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 9-2. Artikulua:

2.- . Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriari buruzko apirilaren 7ko 3/2004 FORU ARAUAK arautzen dituen entitateak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergatik salbuetsita geratuko dira, foru arau honetako 9. artikuluan aipatzen diren ustiapen ekonomikoei dagokienez. Hala eta guztiz ere, entitate horiek behartuta daude zerga horren matrikulan alta deklarazioa eta, jarduerari utziz gero, baja deklarazioa aurkeztera

Salbuespen hau aplikatzeko, beharrezkoa izango da irabazi asmorik gabeko entitateak jakinaraztea dagokion Udalarari, edo Gipuzkoako Foru Aldundiari, 3/2004 Foru Arauaren 16.1 artikulua arautu den aukera gauzatu duela, bai eta Foru Arau horren II Tituluan arautu den zerga erregimen bereziko betebeharrak eta baldintzak betetzea ere.

Berdin salbuetsita geratuko dira Euskaltzaindia, Espainiako Institutua eta haren barneko erret akademiak eta Euskaltzaindiaren antzeko helburuak dituzten autonomia erkidegoetako instituzioak eta Gurutze Gorria eta horrekin pareka daitezkeen beste entitateak, erregelamenduz zehaztuko direnak, eta Espainiako Itsuen Erakunde Nazionala

3. Hiri izaerako ondasunen gehikuntzaren gaineko zergaren 5.2 artikularen h) eta i) apartatua

2.Era berean, balio gehikuntzak salbuetsita egongo dira, zerga ordaintzera behartuta dauden pertsona edo entitateak ondoko hauek direnean:

h) Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 FORU ARAUAK arautzen dituen entitateak

Irabazi asmorik gabeko entitate batek lurren eskualdaketa bat, edo horien gaineko jabaria mugatzen duten gozamenezko eskubide errealean eraketa edo eskualdaketaren bat, ordain truke eginez gero, aipatutako zerga horretatik salbuetsita geratuko da, baldin eta lur horiek betetzen badituzte Ondasun Higiezinaren gaineko Zergatik salbuetsita geratzeko ezarritako betebeharrak.

Salbuespen hau aplikatzeko, beharrezkoa izango da irabazi asmorik gabeko entitateak jakinaraztea dagokion Udalarri, edo Gipuzkoako Foru Aldundiari, 3/2004Foru Arauaren 16.1 artikulua arautu den aukera gauzatu duela, bai eta Foru Arau horren II Tituluan arautu den zerga erregimen bereziko betebeharrak eta baldintzak betetzea ere.

i) Euskaltzaindia, Espainiako Institutua eta haren barneko erret akademiak eta Euskaltzaindiaren antzeko helburuak dituzten autonomia erkidegoetako instituzioak, artikuluhonek 2. apartatuaren h) idatz-zatiak araututako baldintzen arabera.

Zortzigarrena.-Erabakia 30 egunez jendaurrean jartzea, erreklamazioak edo oharra egin ahal izateko.

Bederatzigarrena.- Hartutako erabakia jendaurrean egondako arauzko epean inolako erreklamazio edo oharrik egiten ez bada, behin betiko bihurtuko da.

Hamargarrena.- Alkateri ahalmena ematea erabakiaren testua eta tributuak arautzen dituzten ordenantzak batera biltzeko, udalak onartutako aldaketa guztiak sartuz.

**7.- BATZORDE INFORMATZAILETAN BILDUREN ORDEZKARI DIREN BATZORDEKIDEEN ALDAKETA BERRI EMATEA.** - Udaltzarak jakin du zein zinegotzi izango diren Bilduren ordezkari Batzorde Informatzaileetan.

\* Personala:

Titularra: Luis Intxauspe.

Ordezkoa: Iker Goenaga.

Titularra: Idurre Conde.

Ordezkoa: Aitor Miner.

Titularra: Asier San Emeterio.

Ordezkoa: Beñat Amenabar.

Titularra: Gloria Mendinueta.

Ordezkoa: Kistiñe Lujanbio.

\* Ogasun eta Ondare:  
Titularra: Luis Intxauspe.  
Ordezkoa: Iker Goenaga.

Titularra: Gloria Mendinueta.  
Ordezkoa: Idurre Conde.

Titularra: Asier San Emeterio.  
Ordezkoa: Kistiñe Lujanbio.

Titularra: Aitor Miner.  
Ordezkoa: Beñat Amenabar.

\* Zerbitzu Publikoa:  
Titularra: Luis Intxauspe.  
Ordezkoa: Iker Goenaga.

Titularra: Asier San Emeterio.  
Ordezkoa: Beñat Amenabar.

Titularra: Idurre Conde.  
Ordezkoa: Gloria Mendinueta.

Titularra: Aitor Miner.  
Ordezkoa: Kistiñe Lujanbio.

\* Hirgintza eta ingurumena:  
Titularra: Luis Intxauspe.  
Ordezkoa: Iker Goenaga.

Titularra: Gloria Mendinueta.  
Ordezkoa: Kistiñe Lujanbio.

Titularra: Asier San Emeterio.  
Ordezkoa: Aitor Miner.

Titularra: Beñat Amenabar.  
Ordezkoa: Idurre Conde.

\* Hezkuntza eta ingurumena:  
Titularra: Kistiñe Lujanbio.  
Ordezkoa: Gloria Mendinueta.

Titularra: Beñat Amenabar.  
Ordezkoa: Aitor Miner.

Titularra: Asier San Emeterio  
Ordezkoa: Luis Intxauspe.

Titularra: Idurre Conde.  
Ordezkoa: Iker Goenaga.

\* Kultura eta turismoa:  
Titularra: Luis Intxauspe.  
Ordezkoa: Idurre Conde.

Titularra: Asier San Emeterio.  
Ordezkoa: Aitor Miner.

Titularra: Gloria Mendinueta.  
Ordezkoa: Kistiñe Lujanbio.

Titularra: Iker Goenaga.  
Ordezkoa: Beñat Amenabar.

\* Euskera:  
Titularra: Luis Intxauspe.  
Ordezkoa: Kistiñe Lujanbio.

Titularra: Idurre Conde.  
Ordezkoa: Asier San Emeterio.

Titularra: Iker Goenaga.  
Ordezkoa: Aitor San Emeterio.

Titularra: Gloria Mendinueta.  
Ordezkoa: Beñat Amenabar.

\* Politika Soziala:  
Titularra: Iker Goenaga.  
Ordezkoa: Aitor Miner.

Titularra: Gloria Mendinueta.  
Ordezkoa: Kistiñe Lujanbio.

Titularra: Idurre Conde.  
Ordezkoa: Aitor Miner.

Titularra: Luis Intxauspe.  
Ordezkoa: Beñat Amenabar.

\* Hernani Parte-hartzea:  
Titularra: Luis Intxauspe.  
Ordezkoa: Iker Goenaga.

Titularra: Kistiñe Lujanbio.  
Ordezkoa: Gloria Mendinueta.

Titularra: Asier San Emeterio.

Ordezkoa: Beñat Amenabar.

Titularra: Idurre Conde.

Ordezkoa: Aitor Miner.

\* Kirola:

Titularra: Beñat Amenabar.

Ordezkoa: Asier San Emeterio.

Titularra: Iker Goenaga.

Ordezkoa: Kistiñe Lujanbio.

Titularra: Aitor Miner.

Ordezkoa: Gloria Mendinueta.

Titularra: Idurre Conde.

Ordezkoa: Luis Intxauspe.

\* Giza Eskubideak:

Titularra: Luis Intxauspe.

Ordezkoa: Asier San Emeterio.

Titularra: Gloria Mendinueta.

Ordezkoa: Idurre Conde.

Titularra: Beñat Amenabar.

Ordezkoa: Aitor Miner.

Titularra: Kistiñe Lujanbio.

Ordezkoa: Iker Goenaga.

**8.- ESKAERAK ETA GALDERAK.-** Ez dira egiten.

Beste aztergairik ez dagoenez bilera 19:15 orduetan bukatu da, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

---

### **3. PUNTUAREN ERANSKINA**

## **HERNANIKO UDALERRIKO ASTEROKO FERIAREN ARAUDIA**

### **I. IDAZPURUA**

Aplikazio-eremua

**1.- ARTIKULUA.** Araudi honen xedea eta ezarpen esparrua Hernaniko Asteroko Feria arautzea, antolatzea, zuzentzea eta kontrolatzea da.

#### **2.- ARTIKULUA.**

1.- Era guztietako produktuen salmenta baimentzen da, haiei aplikatu behar zaizkien arau espezifikokoak betetzen badituzte.

2.- Halaber, kalez kale saltzea debekatuta edo mugatuta ez daukaten janariak nahiz agintarien iritziz osasunerako arriskurik ez dakartenak saltzea baimendu ahal izango da. Baimenen titularrek zehatz-mehatz bete beharko dituzte merkaturatzen dituzten produktuen erregelamendu tekniko-sanitarioak eta gainerako araudi ezargarrira ere.

3.- Ez da onartuko salmenta postu berean janari zehaztugabeak saltzea; espezifikokoak izan behar dute.

#### **3.- ARTIKULUA.**

Salmenta postuen kokapena, kopurua, salgaiak eta dagokion baimenaren titularra Zerbitzu Publikoetako delegatuaren dekretu bidez zehaztuko dira, batzordeak alde aurretik irizpena emanda.

### **II. IDAZPURUA**

Azoka-gunearen antolaketa

#### **4.- ARTIKULUA.**

Feria astean behin egingo da, ostegunetan. Alabaina, ostegunen bat jai egun gertatuz gero, aste horretako azoka hurrengo egunera aldatuko litzateke.

ORDUTEGIAK:

- Salmenta postuak jartzeko: 10:00-12:30.
- Produktuak saltzeko: 12:30-18:30.
- Salmenta postuak kentzeko: 18:30-19:30.

Dena den, udalak, interes publikoko arrazoia tarteko, feria-eguna beste egun batera aldatzeko eskubidea izango du, edo bertan behera uztekoa. Hala gertatuz gero, salmenta postuen esleipendunek ez dute kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

Ferian saltzeko baimena duten pertsonak ezingo dituzte goian aipatutako ordutegiak gainditu, ez gaintetik ez azpitik.

Partzelak mugatuta daudenean, esleipena ondoko irizpide hauei jarraituz egingo da:

- Senitartekoen transmisioa.
- Azokan daukaten antzinasunaren ordena.
- Saltzen diren produktuen ordena; bertako produktuak saltzen dituztenek lehentasun osoa izango dute.
- Hernanin bizitzaren ordena.
- Eskabidearen antzinasun egiaztatuaren ordena.

**5.- ARTIKULUA.** Feriara salmenta postua jartzeko finkatua dagoen ordutegiaz kanpo etortzen den saltzaileak bere merkantziak eskuz eraman beharko ditu ibilgailutik salmenta postura. Ibilgailuak, deskargatu eta gero, azokako esparrutik kanpo utzi beharko dituzte, salmentarako mahai gisa moldatutakoak ez badira, behintzat.

**6.- ARTIKULUA.** Udalak, azokaren funtzionamendu eta kontrol egokia bermatzeko, eskalan egindako plano bat izango du, eta plano horretan postu guztien banaketa zenbakitua agertuko da. Zenbaki horiek bat etorriko dira emandako baimenetan eta txarteletan agertzen direnekin.

**7.- ARTIKULUA.** Feria amaitzen denean, okupatutako lekua guztiz garbi utzi behar da, paper, kutxa edo barazki eta fruta arrastorik gabe. Horretarako, hondakin mota bakoitza dagokion edukiontzian sartu beharko dute saltzaileek, honela sailkatuz:

- 1.- Hondakin organikoak: azokako esparruan horretarako espresuki jarrita egongo den edukiontzi marroian.
- 2.- Papera, kartoia...: azokako esparruan horretarako espresuki jarrita egongo den edukiontzi urdinean.
- 3.- Ontzi arinak: azokako esparruan horretarako espresuki jarrita egongo den edukiontzi horian.
- 4.- Beira: Urbietan kaleko bukaeran horretarako dauden edukiontzietan.

**ARTICULO 8.-** Kontuan hartuta Hernaniko azokara hurbiltzen diren erosle askok euskaraz dakitela, Udalak gomendatzen du salgai jarritako produktuen inguruko kartelak, oharrak.....euskaraz edo elebrietan jartzea. Beharrezkoa den kasuetan, Udaleko Euskara Zerbitzuak laguntza emango du.

**9.- ARTIKULUA.** Egunen batean postua jartzeko asmorik ez badago udalari horren berri eman beharko zaio, behar bezala arrazoituta, azoka eguneko **10 orduak** baino lehen. Abisua jaso eta gero udalak beste norbaiti esleituko dio salmenta postua, araudi honetan ezarritako irizpideen arabera. Abisurik ematen ez bada, titularrak galdu egingo du ordainduta daukan tasa.

**10- ARTIKULUA.** Salmentak Udalak feria egiteko erabakitzen duen gunean egingo dira, Udalak espresuki finkatzen dituen lekuetan. Nola lekuak hala gunea bera aldatu ahal izango dira, momentuko beharren arabera, beti ere Udalak bere erabakia saltzaileei alde aurretik adierazita.

**11.- ARTIKULUA.** Hernaniko asteroko feria egiteko lekua Udalak finkatuko du; noizbait feria egiteko lekua aldatu beharra gerta daiteke, momentuko beharrek hala eskatzen badute.

**12.- ARTIKULUA.** Udalak seinaleak jarriko ditu salmenta postuak mugatze aldera, bakoitzari zenbaki bana emango die, eta metro kopuru bat, titularrek aldatu ezingo dituztenak.

**13.- ARTIKULUA.** Salgai guzti-guztiak, karga edo bolumen handia dutenak izan ezik, altura batean egon beharko dute ikusgai. Ezin dira, inola ere, lurraren gainean jarri.

**14.- ARTIKULUA.** Salmenta postuak behin udalak onartu eta gero joko dira finkotzat. Horretarako, zenbaki bat eta kokapen bat emango die.

**15.- ARTIKULUA.** Asteroko Feriaren antolaketa eta zuzendaritza batzordearen ardurapean egongo da. Batzordeak jasoko ditu feriarekin lotuta egindako erreklamazioak, eta haien inguruko ebazpen proposamenak egingo ditu araudi honetan jasotako printzipioen arabera.

### **III. IDAZPURUA**

Salmenta

#### **I. KAPITULUA**

**Salmenta lanetan aritzeko bete beharreko baldintzak**

**16.- ARTIKULUA.** Hernaniko herrian saltzen aritzeko honako hauek bete behar dira:

1.- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako dagozkion epigrafeetan alta emanda egotea eta zerga ordainduta edukitzea.

2.- Dagozkion Gizarte Segurantzako erregimenean alta emanda egotea eta kuota ordainduta eta egunean edukitzea.

3.- Merkaturatutako produktu eta instalazioei buruzko erregelamendu espezifikoek ezarritako baldintza eta betebeharrak higieniko-sanitarioak edo bestelako mota edo izaerakoak betetzea.

4.- Udal baimena izatea.

5.- Dagozkion tasak ordaintzea.

6.- Atzerritarren kasuan, egoitza eta lan baimenak lortuta dituztela egiaztatuko duen dokumentazioa edo bertan bizi eta lan egiteko baimena emango dien beste edozein dokumentazio izatea.

#### **II. KAPITULUA** **Udal baimenak**

**17.- ARTIKULUA.**



Baimen eskabideak Arloko delegatuari bidali beharko zaizkio.

Eskaerak urtero aurkeztuko dira, abenduaren 1a baino lehen. Baimenak urtebeterako izango dira: urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte.

Eskaeran honako hauek adierazi behar dira:

- a) Eskatzailearen izen-abizenak.
- b) NAN edo AIZ eta IFZ zenbakia.
- c) Helbidea, biztanleen errolda agiria erantsita.
- d) Instalazioen eta salgaien deskribapen zehatza.
- e) Salgaiak kontuan hartuta, sortuko diren hiri hondakinekiko asimilagarriak diren hondakin atal desberdinak

Hauek dira hiri hondakinekiko asimilagarriak diren hondakinak: papera eta kartoia, ontzi arinak, materia organikoa eta beira.

## **18.- ARTIKULUA.**

Aurreko artikuluan aipatzen den eskaerarekin batera, eskatzaileak dokumentu hauek aurkeztu behar ditu:

- a) Fotokopiak: NAN, AIZ eta norberaren kontura lan egiteko baimena eta atzerritarrek egoitza baimena edo beste dokumentazioen bat bertan bizi eta lan egiteko baimentzen diona.
- b) Gizarte Segurantzako alta eta kotizazioen azken ordainketaren erreziboa.
- c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako alta eta azken ordainketaren erreziboa.
- d) Elikagaien salmentaren kasuan, elikagaien manipulatzaile txartela eta osasun arloko teknikari eskumendunaren txosten idatzia, elikagai horiek, indarrean dagoen Erregelamendu Tekniko eta Sanitarioak betetzen dituztela-eta, sal daitezkeela adierazten duena.
- e) Jabearen edo titularren izenean salmenta lanetan aritzeko baimendutako pertsonarik baldin badago, haien nortasuna egiaztatzekeo agiriak.
- f) Erantzukizun zibileko aseguruaren erreziboaren fotokopia.

## **III. KAPITULUA Prozedura.**

### **19. ARTIKULUA.**

1.- Eskaera eta dokumentuak jaso ondoren, batzordeak dokumentazio hori aztertuko du eta, egin beharreko txostenak egin ondoren, hala badagokio, eskaera dagokion itxaron zerrendan sartuko du.

2.- Salmenta postuak esleitzeko modua:

Lehena.- **Feria**

A) Urbieta kalean osteguneroko salmenta postu tradizionaletan esleitu beharreko postuen kopurua, kokapena eta sailkapena bat etorriko da delegatuak dekretu bidez egindako sailkapenarekin.

B) Sailkapen hori finkatu eta lizitazioan eskainitako postua esleitu ondoren itxaron zerrenda osatuko da. Itxaron zerrenda 2 urtetik behin berrituko da.

Bi zerrenda osatuko dira: lehen zerrendan Hernaniko biztanleen erroldan gutxienez bi urteko antzintasuna dutenak sartuko dira, eta bigarren zerrendan, berriz, gainerako eskaera guztiak. Zerrenda bakoitzeko ordena eskaeran agertzen den sarrera erregistroko zenbakiaren hurrenkeraren arabera izango da.

Itxaron zerrenda bi urtetik behin berrituko da.

C) Salmenta posturen bat hutsik geratzen bada, ordezkapena egiteko hurrengo arau hauen arabera jokatu da:

- Itxaron zerrendan daudenek bakarrik izango dute geratutako hutsunea betetzeko aukera.

- Ez da itxaron zerrendan gutxienerako antzintasunik eskatuko, eta esleipena gauzatzeko anean itxaron zerrenda agertzen den edozeinek izango du esleipendun izateko aukera.

-Lehenik, Hernanin erroldatutakoei kontsultatu egingo zaie.

Salmenta postuak esleitzeko ezarritako baldintzekin ados dagoela adierazten duen lehenengoari esleituko zaio hutsik dagoen postua.

Adostasuna idatziz aurkeztu beharko da Udaletxeko Sarrera Erregistroan.

- Hernanin erroldatutakoen zerrendan sartutakoen arteko inork ere ez badu adostasunik adierazten, gainerako interesatuen zerrendan sartutakoen artean kontsultatuko da.

Salmenta postuak esleitzeko ezarritako baldintzekin ados dagoela adierazten duen lehenengoari esleituko zaio hutsik dagoen postua. Adostasuna idatziz aurkeztu beharko da Udaletxeko Sarrera Erregistroan.

4.- Salmenta postuaren esleipena Zerbitzuetako delegatuaren dekretu bidez erabakiko da. Dekretuan espresuki azalduko da baimenaren titularra nor den eta baimena ustiatzeko gainerako baldintzak zeintzuk diren.

## **20. ARTIKULUA.**

Baimendutako pertsona guztiei identifikazio txartel bana emango zaie eta bertan datu hauek agertuko dira:

- - Jabearen eta baimendutako pertsonen, baldin baleude, izen-abizenak.
- - Salmenta baimenaren balio epea.
- - Baimendutako produktuak.
- - Salmenta postuaren zenbakia, maiztasun eta kokapen finkoko azokaren kasuan, eta saltzen aritzeko lekua edo lekuak, egunak eta ordutegia.
- - Baimenaren iraungitze-data.

Identifikazioa bistan egon beharko du denbora guztian, salmenta postuko leku ageri batean, eta udaleko agintariek saltzaileari hura erakusteko eskatzen badiote hark erakutsi egin beharko die. Saltze lanetan postuaren titularra ez den beste pertsonaren bat ari bada, interesatuari bere identifikazioa eskatu ahal izango zaio, bai eta postua ustiatzeko eta titularra ez den beste pertsona bat saltzen aritzeko baimenak erakusteko ere.

## **21.- ARTIKULUA.**

Baimenek zuhurtziaz emango dira eta, beraz, udalak kendu ahal izango ditu baldin eta emateko orduan ziren inguruabarrak desagertu direla-eta hala egitea egoki jotzen badu, interes publikoaren arrazoiengatik eta Ordenantza hau zein ezargarria den araudia ez betetzeagatik: Horrek ez du inolako kalte-ordain edo konpentsaziorik ekarriko.

Epe baten beraren barruan ezin izango zaio saltzaile bati kalean saltzen aritzeko baimen bat baino gehiago eman.

## **IV. KAPITULUA**

### **Udal baimenaren ezaugarriak**

## **22. ARTIKULUA**

Udalaren baimena pertsonala da eta ezin zaio beste inori utzi. Hala ere, jabearen ezkontideak, seme-alabek, eta enplegatuek ere erabil dezakete, Gizarte Segurantzari alta emanda egonez gero. Edozein kasutan ere, baimenaren titularra ez den beste pertsona batek baimen hori erabili nahi izatekotan, berariaz udalari jakinarazi beharko zaio, eta udalak baimena eman beharko. Edozein unetan eskatu ahala izango zaio identifikazioa.

## **23. ARTIKULUA**

Baimenak gehienez ere urtebeteko indarraldia izango du.

Postuetarako baimen berria lortzeko hainbat dokumentu derrigor aurkeztu behar zaizkio udal agintaritzari. Horretarako azken eguna azaroaren 30a izango da.

Udalak egiaztatu beharko du bai eskatzaileak bai saltzeko produktuek lege baldintza eta betebeharrak betetzen ote dituen eta, hala bada, baimena beste urtebeterako berrituko dio.

Lehentasun eskubide hori egokituko zaie baimenaren titularrei beren baimenaren iraungitze momentuan eta aipatutako baimen horri atxikitako salmenta postuari bakarrik eta esklusiboki dagokiola.

Aipatu diren lege baldintza eta betebeharrak betetzen ez badira edo emandako epearen barruan errekeritutako dokumentazioa aurkezten ez bada, baimena baliogabetuta eta eraginik gabe geratuko da eta, araudi honetan ezarritako prozeduraren arabera, postu hori beste norbaiti esleituko zaio.

**24. ARTIKULUA.** Hernaniko asteroko ferian saltzen aritzeko udalari lizentzia eskatu behar zaio. Eta horretarako honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Alkate-lehendakariari zuzendutako eskabidea, erregistroan sarrera emanda.
- NANaren fotokopia
- Lizentzia fiskalaren fotokopia, indarrean dagoen ekitaldikoa, eta saldu nahi diren salgaien epigrafekoa.
- Gizarte Segurantzaren alta emanda dagoela justifikatzen duen agiriaren fotokopia.
- Osasun gida behar duten janariak saltzeko, osasun baimenaren fotokopia ere bai.
- Atzeritarren kasuan, beste hau ere egiaztatuta beharko dute: hemen bizitzeko eta beren kontura lan egiteko baimenak badituztela, indarrean dagoen legeriak eskatzen dituenak beteta.
- Udaleko tasak ordainduak izatea.

#### **IV. IDAZPURUA**

##### **DEBEKUAK, BAIMEN-ETETEA ETA TRAMITAZIOAK**

**25. ARTIKULUA.** Erabat debekaturik dago feria egiteko erabakita dagoen gunetik kanpo saltzen ibiltzea.

**26. ARTIKULUA.** Debekaturik dago bakoitzak bere postutik kanpo bere merkantziak hedatzea, eta publikoarentzako pasabidea eragozteak. Debekaturik dago, halaber, leku horietan kartoiak edo hondakinak uztea.

**27. ARTIKULUA.** Erabat debekaturik dago ferian haragi freskoa nahiz izoztua saltzea. Arraina saltzea ere debekatua dago, edonola dagoela ere, arrain gazitua izan ezik.

**28. ARTIKULUA.** Debekaturik dago publizitatea egitea, hau da, produktuak ikusteko moduan jarrita eta ahozko erakarpeneren bidez lortzen dena bai, baina horretaz aparte bestelako publizitaterik ez. Beraz, ezin da megafonia bidezko sistemarik edo musika aparataturik erabili.

**29. ARTIKULUA.** Feriaren esparruan ezin da ibilgailurik utzi, salbu eta araudi honen 5. artikuluan aipatzen direnak.

**30. ARTIKULUA.** Erabat debekaturik dago hirugarren bati salmenta postua lagatzea udalak horretarako baimenik eman ez badu.

**31. ARTIKULUA.** Baimena baliorik gabe geldi daiteke baldin eta delegatuak, batzordeak proposaturik, hala erabakitzen badu. Hona hemen erabaki hori hartzeko gertatu beharrekoak:

- 1.- Baimenaren jabeak lizentzia bere borondatez uztea (udalari idatziz jakinarazi beharko dio).
- 2.- Postua beste norbaiti azpierreentatzea edo uztea.
- 3.- Baimenean jasotako alorrekoak ez diren produktuak saltzea.

- 4.- Tasak ez ordaintzea, arrazoi justifikaturik gabe. Hiruhileko bat arrazoi justifikaturik gabe ordaindu gabe uzten bada lizentzia, besterik gabe, baliogabetu egingo da.
- 5.- Salmentaren ondorioz sortzen diren hiri hondakinekiko asimilagarriak diren hondakinak ordenantza honen 36. artikuluan jasota datorren moduan ez kudeatzea.
- 6.- Urtebetean lau astetan segidan edo bost txanda aldizkatutan ferian ez azaltzea, arrazoi justifikaturik gabe.
- 7.- Araudi honetan ezarritako debekuren bat ez betetzea.
- 8.- Zerbitzu batzordeak larritzat jotzen duen beste edozein gauza egitea, egindako hori baimena kentzeko nahiko arrazoi dela jotzen badu.
- 9.- Udaltzaingoari menik ez egitea.
- 10.- Esleipendunek araudi honetan xedatutakoaren arabera dauzkaten obligazioak behin baino gehiagotan ez betetzea.

### **32. ARTIKULUA.**

Batzordeak araudi honetan tipifikaturiko edozein kasuren berri jakiterakoan alkate jaunari proposatuko dio emandako baimena zuhurtziaz indargabe dezala, harik eta egindako arau haustea aztertzen eta horrengatik dagokion zigorra proposatzen den arte.

Salaketan azaldutako arazoari buruzko irizpena eman ahal izateko, batzordeak interesatuari entzunaldia emango dio, hark bere alde bidezko jotzen dituenak esateko aukera izan dezan.

Interesatuari entzun ondoren eta egindako salaketa eta gaiaren inguruko txostenak ikusita, Batzordeak erabakiko du ea baimena behin betiko ala behin-behingo eteten den. Etendura interesatuari jakinarazi eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Baimena eteteko erabakiaren aurka berraztertzeko errekurtsua jartzeko aukera dago. Errekurtsua delegatuari bidali behar zaio, etendura jakinarazi eta hilabeteko epean. Errekurtsuan argi eta garbi adierazi behar dira norberaren aldeko arrazoiak eta errekurritutako erabakiaren kontrakoak.

## **IV KAPITULUA. FERIAREN ZAINZA ETA TASEN ORDAINKETA**

**33. ARTIKULUA.** Udaltzaingoa arduratuko da asteroko feria zaintzeaz eta araudi honetan ezarritakoa betetzen dela ikuskatzeaz.

Udaltzainek postuetan saltzen ari direnak udal baimenik badaukaten ala ez daukaten egiaztatu ahal izango dute eta, horretarako, baimen-agiria eskatu ahal izango diete. Bestalde, postuak, bai kokapenari bai eta hartzen duten azalerari dagokionez, lizentzian ezarritakoarekin bat ote datozen ere egiaztatu ahal izango dute.

**34. ARTIKULUA.** Tasen ordainketa hiru hilero egingo da, aldez aurretik, hiruhilekoa hasi baino zortzi egun lehenago.

Kuotak ordaindu eta gero agiri bat egingo da eta agiri horretan salmenta postuaren zenbakia eta balio-epea adieraziko dira. Agiri hori izango da udaltzainei erakutsi beharko zaiena hala egiteko eskatzen badute.

**35. ARTIKULUA.** Udaltzainei saltzaileen zerrenda emango zaie, feriaren kontrola behar bezala egin dezaten. Zerrendan saltzaile bakoitzaren kuota eta modalitatea azalduko da, postua eta saltzailea identifikatzearen.

## **V. KAPITULUA. SALTZAILEEN BETEBEHARRAK**

**36. ARTIKULUA.** Hona hemen saltzaileen betebeharrak:

1.- Esleitutako salmenta postuaz 15 eguneko apean jabetzea.  
2.- Salgaiei aplikatu beharreko osasun arloko xedapenak eta bestelako xedapen espezifikoak betetzea.

3.- Udaltzainen esana betetzea.

4.- Erosleak errespetuz tratatzea

5.- Zigorgarri diren merkataritza-operaziorik ez egitea.

6.- Feriaren esparruan sesiorik, eztabaidarik, istilurik edo iskanbilarik ez sortzea.

7.- Udal tasak ordaintzea.

8.- Agintari eskudunek agintzen dituzten osasun ikuskaritzak egitea.

9.- Salmentaren ondorioz sortzen diren hiri hondakinekiko asimilagarriak diren hondakinak ordenantza honen 36. artikuluan jasota datorren moduan kudeatzea eta, salmenta bukatu ondoren, hartutako espazio guztia txukun eta garbi uztea.

**37. ARTIKULUA.** Espaloietan, hormetan, zuhaitzetan edo edozein eratako instalazioetan kalteren bat eragiten duen edozein saltzailek inolako aitzakia edo zuribiderik gabe ordaindu beharko du konponketaren zenbatekoa. Horretarako 15 eguneko epea izango du eta, hala egiten ez badu, dagokion isuna ordainduko du.

**38. ARTIKULUA.** Udalak postuen %10 garaiko produktuen salmentarako esleitzeko aukera dauka.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

HERNANIKO UDALERRIKO ASTEROKO FERIAREN ARAUDI HAU indarrean sartzen den unetik aurrera baliorik gabe geratuko dira aurreko araudia, 1988koa, eta asteroko feriarekin loturik dauden gainerako xedapen guztiak.

## **AZKEN XEDAPENAK**

**Lehena.** Araudi honek Hernaniko asteroko feriarekin zer ikusirik duen edozein pertsona edo erakunderengan izango du eragina, bakoitzari dagokionaren arabera.

**Bigarrena.** Araudi honetan xedaturik ez dagoenerako Merkataritza-jarduera antolatzeko maiatzaren 19ko 8/1983 Legeak ezartzen duena hartuko da kontuan, bai eta lege hori garatze aldera emandako gainerako xedapenak eta Udalak nahiz erakunde eskumendunek gai honi buruz hartzen dituzten erabakiak ere.

**Hirugarrena.-** Araudi hau 2013ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

---

## **4. PUNTUAREN ERANSKINA**

### **HERNANIKO UDAL HILERRIAREN ARAUDIA**

#### **I. TITULUA – XEDAPEN OROKORRAK**

### ***LEHENENGO KAPITULUA.-ARAU OROKORRAK***

#### **1. ARTIKULUA.- Xedea eta arautegia**

Hernaniko Elizatxo Auzoan dagoen udal hilerria udalaren zerbitzu publiko bati loturiko jabari publikoko ondasuna da, eta Hernaniko Udala da haren titularra. Hori dela-eta, berari dagokio hilerria administratzea, zaintzea eta zuzentzea. Dena den, beste administrazio publiko batzuek eta agintaritza judizialak zenbait eskumen izan ditzakete arlo horretan.

Araudi honen xedea da Hernaniko Udal Hilerriaren zerbitzu orokorrak eta, era berean, hilerriaren zerbitzua emateko modua, era guztietako lurperatze-unitateen esleipena, instalazioen eta zerbitzu orokorren mantentze-lanak, segurtasuna eta obren exekuzioa eta gainerako zerbitzuak arautzea.

Honako hauek arautuko dute hilerriaren araubide juridikoa eta administrazioa: jabari edo/eta zerbitzu publikoko ondasunei buruzko araudiak, Gorpuen Osasun-Zaintzari buruzko araudiak, Udal Ordenantza Fiskalek eta Araudi honek.

#### **2. ARTIKULUA.- Instalazioak**

Hilerria hura eraikitzeke onartu zen planoan (ondorengo aldaketak eta guzti) ezarritako moduan dago banatua, eta honako instalazio hauek ditu:

- Gorpu bakar baterako erabilera komun eta pribatiboko horma-hilobiak
- Bi edo sei gorputarako erabilera komuneko horma-hilobiak
- Erabilera komun eta pribatiboko panteoiak.
- Hezurtegi orokorra
- Erabilera komuneko kolunbarioa
- Gerra Zibilean hildako eta fusilatuentzako gunekak.
- Udal instalazioak:
  - Hileta-zeremonietarako balio anitzeko gunekomuna
  - Bulegoa
  - Komunak
  - Aldagela
  - Lanabesak gordetzeko biltegia

Udalak instalazioak handitu, txikitu, aldatu eta eraiki ahal izango ditu zerbitzua behar berrietara egokitzeko.

Hileta-zeremonietarako gunekomuna eskusiboki erabiltzeko (eskaintzen diren gainerako zerbitzuak erabili gabe, hala nola, hilobitik ateratzeak, uzteak...) dagokion udal tasa ordaindu beharko da, eta aldeztu aurretik eskaera egin beharko.

### **3. ARTIKULUA.- Eginkizunak**

Hilerria administratu, zaindu eta zuzentzeko orduan, hauek dira Hernaniko Udalari dagokion eginkizunak:

- Hilerria eta hilobi-eraikinak, zerbitzuak eta instalazioak antolatu, zaindu eta egokitzea.
- Herritarrek hilerrian edozein lan edo instalazio egin nahi izanez gero, horretarako baimena eman eta zuzendaritza zein ikuskatze lana egitea.
- Lurperatze-eskubideak ematea, onartzea, aldatzea, bizien arteko edo heriotzaren ondoriozko eskualdaketak egitea, lurperatze-eskubideen iraungipena deklaratzeko eta eskubide horien ordezkariak izendatzeko eta haiei dagokien tituluak izapidetzea eta egitea.
- Dagokion Ordenantza Fiskalean ezartzen diren eskubideak eta tasak jasotzea.
- Emandako edo gerora ematen diren apaindura, sanitate eta higiegi neurriak betetzea.
- Hilobiak, horma-hilobiak, panteoiak eta kolunbarioak esleitzea, dagokien lurperatze-eskubidearen titulua emanez.
- Gorpuak eta gorpuzkiak hilobiratzea eta hilobitik ateratzea.
- Gorpuzkiak biltzea eta murriztea.
- Hilariak mugitzea (udal langileek).
- Hilerria eta bertako hilobi-eraikinak zaintzea eta garbitzea.
- Hilerriko barne-araudiari lotutako beste edozein eginkizun.



#### **4. ARTIKULUA.- Administrazio eginkizunak atxikitzea.**

Zerbitzu Publikoen Batzorde Informatiboak edo haren funtzioak betetzen dituenak, hilerria bere ardurapean izango du, udal-zerbitzu den aldetik, eta zerbitzu publiko hori hobeto administratzeko eta emateko egokitzat jotzen dituen proposamenak egin ahal izango ditu.

#### **5. ARTIKULUA.- Ideologia eta erlijio askatasuna.**

Udal hilerrietan ideologia eta erlijio askatasunarekiko errespetu handia izan behar da.

Askatasun hori bermatzearren:

- a) Udala akonfesionala izango da, eta bere instalazioetan ez du erlijio-sinbolorik erabiliko.
- b) Udalak baimena emango du erabilera pribatiboko elementuetan erlijio sinboloak, epitafioak, oroigarriak, ikurrak eta gainerako sinboloak erabiltzeko.
- c) Udalak, hilerriak berriro edo handitzeko garaian, sinismen ezberdinetako hileta-erabilerak hartuko ditu kontuan.

#### **6. ARTIKULUA.- Bizikidetzaren arauak.**

Udalaren zeregina izango da hilerrian ordena mantentzea eta halako leku bati zor zaion begirunea bermatzea. Horretarako, arau hauek beteko dira:

- Hilerria jendearentzat zabalik egongo da udal-organo eskudunak erabakitako orduetan.
- Bisitariak uneoro jokatuko dute hilerriari zor zaion begirunez; hala gertatzen ez bada, Udalak eskura dituen neurri legalak har ditzake arau hori hausten dutenak hilerrietik kanporatzeko.
- Udalak hilerria zainduko du, baina hilobietan lapurretarik edo kalterik gertatzen baldin bada, ez du erantzukizunik izango. Era berean, gorpuzkiak hilobitik ateratzeko unean hilarriak edo plakak hausten badira, hilerriko langileak ez dira horren erantzule izango.
- Hilerriaren barruan, korridoreetatik soilik ibili ahal izango da, hilobietarako guneetan sartu gabe. Horrez gain, ibilgailuak ezin izango dira sartu, ezinduek erabiltzen dituztenak eta instalakuntzen ohiko funtzionamendurako beharrezkoak direnak izan ezik; azken horiek udal-arduradunaren baimena beharko dute. Horregatik, hilerriko mantentze eta berritze lanetarako sartu beharreko ibilgailuak hilerriko udal arduradunaren lanaldiaren barruan bakarrik sartu ahal izango dira, hots, 08:00etatik 13:30era.
- Debehatuta dago hilerriaren barruan edozein merkataritza-jarduera egitea. Hilerrietik kanpo, salmenta ibiltariari buruzko udal-araudia aplikatuko da.
- Ez da onartuko hilerrian janaria edo/eta edaria daukaten pertsonarik egotea eta ezingo da bertan lo egin edo eskean ibili.
- Hilobietako obrak eta inskripzioak bat etorriko dira Udalak finkatutako baldintza estetikoekin eta hilerriari zor zaion errespetuarekin.
- Debehatuta dago hilobiak giltzarrapoekin edo antzeko beste edozein osagairekin ixtea, eta orobat hilobietara sartzeko beharrezko baimen administratiborik eta/edo sanitariorik gabe.

- Hilerriari atxikitako intimitate-eskubidea eta begirunea bermatzeko, ezin izango da lurperatze unitate eta instalazioen ez eta hilerriaren ikuspegi orokor edo partzialen argazkirik, erreportajerik, marrazkirik edota margolanik egin, Udalak alde aurretik espresuki baimen idatzirik eman gabe.
- Debekatuta dago hilerrian animaliak sartzea, ezinduek erabiltzen dituztenak izan ezik.

Arau hauek eta hilerriari lotutako bestelako araudi edo ohar jendaurrean ikusgai jarriko dira, hilerriaren sarrerako iragarki-taulan.

## **BIGARREN KAPITULUA.- LANGILEAK**

**7. ARTIKULUA.-** Udalak behar diren langileak izango ditu hilerria zuzentzeko, kontserbatzeko, zaintzeko eta zerbitzuak emateko. Zeregin horiek legez izendatutako funtzionarioek, behar bezala kontratatutako langileek edo kanpoko zerbitzuetako langileek beteko dituzte.

**8. ARTIKULUA.-** Langileek Udalak erabakitako bereizgarriak eta jantziak erabiliko dituzte eta Udalak agindutako laneko segurtasunari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia beteko dute.

Uneoro saiaturiko dira hilerria bisitatzen dutenei alferrikako eragozpenik ez sortzen, eta gorpuak ahalik eta begirune handienarekin hilobiratu, hilobitik atera eta lekuz aldatuko dituzte.

Aurkezten dizkieten keak eta erreklamazioak entzun, jakinarazi eta, ahal den neurrian, konponduko dituzte, betiere begirunez.

Debekatuta dago hilerriko langileek edo beste pertsona batzuek zerbitzu edo enpresa jakin batzuen aldeko propaganda egitea.

Debekatuta dago, era berean, langileek dirua jasotzea beren lanpostuari atxikitako zerbitzuak egiteagatik.

**9. ARTIKULUA.-** Udal lurperatzaileak, Hilerriko zerbitzuaren arduraduna den aldetik, gorpuak hilobiratzeari, hilobitik ateratzeari, lekuz aldatzeari eta abarri buruz indarrean dauden arauak eta legeak eta orobat goragokoen aginduak bete eta betearazi beharko ditu.

Hauek dira, halaber, lurperatzailearen zereginak:

- Hilerria eta bertako instalazioak garbitzea, hilerriko apaingarriak txukuntzea eta Udalak jarritako landareak eta zuhaitzak zaintzea.
- Hilerrian dauden gauza guztiak zaintzea, bai hilobien apaingarriak, bai zerbitzua emateko beharrezkoak diren osagaiak, lanabesak edo erremintak.
- Nolanahi ere, Udalaren dagokion sailak betetako lurperatze-orria aurkezteko eskatzea, eta zerbitzua egin ondoren, orrian bere adostasuna jasota, udalaren sail horri berari itzuli eta orriaren hirugarren kopia hilerrian bertan dagoen bulegoan artxibatzea. Hori egitea derrigorrezkoa izango da, bestela ezingo da hilobiratzetik edo dena delako zerbitzurik egin.
- Hilobiratzeko edo hilobitik ateratzeko, eta hilobiak itxi edo estaltzeko beharrezkoak diren lanak egitea.
- Hilobiak hustu eta garbitzetik jasotako arropa, hileta-tresna eta bestelako gauzak suntsitzea.
- Hilerriko giltza gordetzea, alkateak besterik agintzen ez badu behintzat.
- Hilerriko ordena egokia bermatzea, eta lekuari zor zaion begirunea asaldatzen duten pertsonak eta jarduerak saihestea.

- Alkateak bere eskumenaren arabera ematen dituen agindu bereziak betetzea.
- Agintzen zaion beste edozein eginkizun egitea, baldin eta bere lanpostuaren zereginekin zerikusia badu.

## **HIRUGARREN KAPITULUA.- ERROLDA PUBLIKOA**

**10. ARTIKULUA.-** Errolda bana eratuko da, lurperatze-unitateak eta lurperatze-eskubideak zein egiten diren zerbitzuak jasotzeko.

Beharrezko neurriak hartuko dira datuen segurtasuna bermatzeko, eta datuak aldatzea, galtzea eta baimenik gabe tratatzea edo eskuratzea galarazteko.

**11. ARTIKULUA.-** Lurperatze-eskubideen errolda.

- Panteoien Errolda Orokorra
- Horma-hilobien Errolda Orokorra
- Kolunbarioen Errolda Orokorra

Lurperatze-unitateei eta lurperatze-eskubideei dagokienez, datu hauek jasoko dira:

- Panteoi, horma-hilobi edo hezurtegiaren identifikazioa.
- Lurperatze-eskubidea eman zeneko data eta haren indarraldia.
- Titularraren edo haren ordezkariaren izen-abizenak eta helbidea.
- Bizien arteko edo heriotzaren ondoriozko jarraikako eskualdaketak.
- Egindako hilobiratze, hilobitik ateratze edo lekuz aldatzeak; berariaz aipatuko da gorpua edo gorpuzkiak norenak ziren (izen-abizenak eta sexua) eta ekintzok noiz gauzatu ziren.
- Mugak eta debekuak, halakorik balego.
- Lurperatze-unitateari eragiten dion beste edozer.

**12. ARTIKULUA.-**Lurperatze-zerbitzuen errolda.

- Hilobiratzea
- Gorpuak hilobitik ateratzea eta lekuz aldatzea
- Gorpuzkiak murriztea
- Jakinarazpenen sarrera eta irteera egitea
- Zerbitzurako beharrezkotzat jotzen den beste zernahi

Eta datu hauek jasoko dira:

- a) Hilobiratutako edo hilobitik ateratako gorpua izen-abizenak.
- b) Zerbitzua egin duen ehorzketa-enpresaren izena, hala badagokio.
- c) Zerbitzua noiz eman zen.

- d) Hilobiratzearen lekua, edo hilobitik ateratako gorpuzkien norakoa.
- e) Gorpuzkiak hilobitik ateratzeko zerbitzuaren arrazoia.

## II. TITULUA.- ZERBITZUAK

### ***LEHENENGO KAPITULUA.- HILOBIRATZEA ETA BERRIZ HILOBIRATZEA***

#### 13. ARTIKULUA.-

##### 1.- Hilobiratzeak instalazio hauetan egin daitezke:

- Gorpu bakar baterako erabilera komun eta pribatiboko horma-hilobietan
- Bi edo sei gorputarako erabilera komuneko horma-hilobietan
- Erabilera komun eta pribatiboko panteoietan
- Hezurtegi orokorrean
- Erabilera komuneko kolunbarioan

2.- Panteoietan hurrenez hurren zenbat gorpu lurpera daitezkeen zehazterakoan, hilobiaren edukiera bera izango da muga bakarra.

#### 14. ARTIKULUA.-Baimen eskaerak:

- Gorpuak hilobiratzeko, hilobitik ateratzeko eta lekuz aldatzeko Udalaren baimena beharko da eta, hala badagokio, osasun eta epai agintariena ere bai.
- Hilobiratzeak uanean-uean indarrean dagoen araudi tekniko sanitarioa betez egingo dira.
- Gorpuak hilobiratzeko ezinbestekoa izango da heriotzaren ondorengo arauzko behaketa-epea igarotzea, eta epea igaro dela justifikatzeko, Epaitegi eskudunak emango du lurperatzeko agindua.
- Gorpua dakarren ehorzketa-enpresak edo pertsonak hilerriko zerbitzua ematen duen arduradunari beharrezkoa den dokumentazioa emango dio gorpua hilobiratu ahal izateko.
- Udalaren baimena lortzeko beharrezkoa izango da ondoko agiri hauek aurkeztea:
  - Eskaera-orri normalizatua.
  - Lurperatzeko lizentzia, dagokion epaitegiak emana.
  - Gorpu bat erabilera pribatiboko panteoi batean hilobiratzeko, hilobi-lagapenaren titulua. Gorpua lurperatze-eskubidearen titularrarena berarena ez baldin bada, titulartasunaren ordezkariaren edo hark baimendutako pertsonaren baimena.
  - Gorpua beste udalerriren batetik ekarria bada, Osakidetzaren baimena.
  - Heriotza ez naturaleko kasuetan udal epailearen edo eskumena duenaren baimena.
  - Dagokion ordenantza fiskalean ezarritako lurperatze-eskubideen ordain-agiria.

15. ARTIKULUA.- Gorpu orori emango zaio lurra, baldin eta izapide legalak bete badira, Udal Ordenantza Fiskalak ezarritako lurperatze-eskubideak ordaindu badira eta jarraian adierazitako baldintzaren bat betetzen badu:

- Hernanin jaioa izatea
- Heriotza gertatu denean Hernanin erroldatua egotea
- Aurreko ataletan deskribatutako egoeraren batean dauden pertsonen lehen mailako aurreko edo ondorengo zuzena izatea
- Udal agintariak bidezko jotzen dituen bestelako baldintzak

#### **16. ARTIKULUA.- SALBUETSIK**

Udalaren konturakoak izango dira hilobiratzeagatik ordaindu beharreko kanona ordaintzeko diru baliabiderik ez duten Hernanin jaio edo hildakoen hilobiratzea, baldin eta benetan egiaztatzen bada Hernanin jaioak edo hilak direla.

**17. ARTIKULUA.-** Udalak urtero finkatuko ditu hilobiratzeko orduak, zerbitzua hobetze aldera. Gorpuaren arduradunak zerbitzuko arduradunari galdetuko dio lurperatzeko ordu zehatza zein den, zerbitzua ohiko moduan eman ahal izateko. Nolanahi ere, ordutegi honetan lurperatuko dira gorpuak:

- Astelehenetik igandera: 9:00etatik 13:30era.

Bi jai egun jarrai gertatzen badira, hilobiratzea bigarren jai egunean egingo da.

Ostiraletan baimendutako lurperatzeak hurrengo egunean egingo dira.

- Errautsak gordetzeko ekitaldiak: astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:30era.

#### **BIGARREN KAPITULUA.- GORPUZKIAK HILOBITIK ATERATZEA, LEKUZ ALDATZEA ETA MURRIZTEA**

#### **18. ARTIKULUA.-**

Gorpuak edo gorpuzkiak hilobitik atera daitezke lekuz aldatu eta hilerrian bertan berriz hilobiratzeko nahiz beste leku batera eramateko.

Hilobitik ateratzeko eta lekuz aldatzeko, unean-unean indarrean diren sanitate arauak errespetatuko dira.

#### **19. ARTIKULUA.-**

Gorpuzkiak hilobitik ateratzeko eskaera gorpuzki horiek dauden lekuko lurperatze-eskubidearen ordezkariak edo hildakoaren oinordekoek edo ingurukoek egingo dute. Gorpuzkiak hilerri barruko beste leku batera eramateko ere adostasuna eskatuko zaio lurperatze-eskubidearen titularrari edo ordezkariari.

#### **20. ARTIKULUA.-**

Gorpuak edo gorpuzkiak hilobitik ateratzeko agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Eskaera-orria, errolda publikoan jasotzeko datuekin.
- Lurperatuko den lekuaren titularraren baimena, hilerri barruan lekualdatu behar bada.
- Osasun agintarien baimena, udalerritik kanpora eraman behar bada.
- Dagokion ordenantza fiskalean ezarrita dauden eskubideen ordain-agiria.

## 21. ARTIKULUA.-

- Hildako baten izenean dagoen panteoi batean sartutako gorpu edo gorpuzkien lekualdaketa baimentzeko, aldez aurretik tituluaren eskualdaketa eskatu beharra dago.
- Lekualdaketa egiteko, gorpuzkiak poltsa edo kaxa batean sartuko dira, hilerri barruko beste leku batera eraman behar badira; edo gorpuzkien kutxa batean, hilerritik kanpo eraman behar badira.

## 22. ARTIKULUA.- Gorpuzkiak murriztea

**Gorpuzkiak murriztea honi deritzo: gorpuzkiak errauts-kutxa edo poltsa txikietan sartu eta lurperatze-unitate beraren barruan nahiz espresuki horretarako den unitate batean uzteari. Lurperatze-unitatearen edo hilerriaren edukiera handitzearen egiten da.**

Izen bera ematen zaio gorpuzkiak hezurtegi orokorrera eramateari.

Gorpuzkien bilketa eta murrizketa udal zerbitzuek egingo dute, lurperatze-unitatearen titularraren ordezkariak eskatuta, edo udalak bere kabuz erabakita, emakida-epea bukatzen denean. Batean zein bestean interesdunak dagokion tasa ordaindu beharko du.

Salbuespeneko egoeraren bat gertatzen bada, edo instalazioen okupazio-maila handia bada, Udalak bere kabuz erabaki dezake gorpuzkiak murriztea.

## 23. ARTIKULUA.- Higiene eta sanitate neurriak

- Udako hilabeteetan hilobitik ateratzeko lanak aldi batez bertan behera utzi ahal izango dira, agintari judizialek agindutakoak izan ezik.
- Hilobitik ateratzeko lanak egiteko garaian, kasu bakoitzari dagozkion higiene eta sanitate arauak bete behar dira; halaber, lan-osasunaren eta lan-arriskuen prebentzioaren arloko araudiak bete behar dira. Gorpuak edo gorpuzkiak hilobitik ateratzeko ardura duten langileek eskularru gogorrak, maska, botak eta babes-arropa berezia erabiliko dituzte.

**24. ARTIKULUA.-** Gorpuak eta gorpuzkiak hilobitik ateratzeko lanak, lekuz aldatzekoak eta murriztekoak hilerriko langileen lan-ordutegiaren barruan egingo dira; ordutegi hori, ahal izanez

gero, bat etorriko da bisitari gutxien dagoen orduekin. Eta, osasun-ikuskatzailea bertaratu behar izanez gero, hilerriko arduradunarekin batera finkatuko da.

## **HIRUGARREN KAPITULUA.- BAIMENA**

### **25. ARTIKULUA.-**

**Eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren Udalak baimena emango du. Hona hemen baimenean agertuko diren datuak:**

- Hildakoaren izen-abizenak
- Heriotzaren data eta lekua eta hildakoaren sexua
- Eskatzailearen izen-abizenak eta hildakoarekiko harremana
- Egin beharreko zerbitzu mota (hilobiratzea, hilobitik ateratzea edo lekuz aldatzea)
- Hilobiratze, hilobitik ateratzeko edo lekuz aldatzeko lekua

Hilerriaren arduradunari baimenaren **hiru ale** emango zaizkio, agiri guztiak behar den bezala daudela frogatze aldera eta egin beharreko lanak (hilobiratzea, hilobitik ateratzea edo lekuz aldatzea) egin daitezkeela adierazte aldera. Hilerriko langileak baimenaren jatorrizko alea izenpetu eta udaletxera bidaliko du, egin beharreko zehatz-mehatz bete duela frogatzeko eta dagokion erregistro liburuan jasotzeko. Beste ale bat sinatua senitartekoei emango die eta hirugarrena udal bulegoetan artxibatuko da.

### **26. ARTIKULUA.-**

- Ez da erabilera pribatiboko hilobitan, panteoitan edo horma-hilobitan hilobiratzerik edo hilobitik ateratzerik baimenduko baldin eta emakidaren titularrak edo udalaren aurrean titularkidetzaren ordezkaria denak beharrezkoa den erabilera-baimena aurkezten ez badu.
- Ez da eskakizun hori bete beharrik izango lurperatuko beharrezkoa lurperatze-eskubidearen titularra bera baldin bada. Eta lurperatze-eskubidearen eskualdaketa egin dadila eskatuko da. Oinordekorik ez baldin badago, udalak erabilera-eskubidea berreskuratuko du.
- Gorpua non lurperatu behar den erabakitze orduan eztabaidarik sortzen baldin bada eta, denbora kontua dela-eta, udalak ezin badu behin betiko erabakirik hartu, horma-hilobi batean hilobiratu da behin-behingo. Auzia erabakita gelditzen denean, udalak ebazpen irmoa emanda, gorpua behin betiko hilobira eramango da, hilerrian bertan lekuz aldatu beharrezkoa baldin bada.
- **Behin betiko hilobiratzea beste hilerri batean egitekoa bada, alde zurretik gorpua baltsamatu eta osasun-agintarien baimena eskuratu beharko da.**
- **Aldiz, eztabaida gorpuzkiak hilobitik atera edo murriztu behar den kasuren baten inguruan gertatuz gero, ez da behin-behingo neurririk hartuko, gauzak dauden bezala utziko dira behin betiko ebazpena eman arte.**
- Titulua sozietate, fundazio edo komunitate erlijioso edo ospitalarioren baten izenean emana baldin badago, hilobiratzea egin ahal izateko egiaztatu beharko da hilobiratu beharreko gorpua komunitate horretako kide edo langileren batena dela edo bertan babesean hartutako norbaitena dela.

### III. TITULUA.-LURPERATZE-ESKUBIDEAK

#### LEHENENGO KAPITULUA.-IZAERA ETA EDUKIA.

##### 27. ARTIKULUA.- Definizioa.

1. Lurperatze-unitateak edo hilobi, partzela, panteoi, horma-hilobi edo hezurtegiak erabiltzeko lurperatze-eskubidea sortzen da lurperatze-unitate bakoitzerako titulua eman eta dagokion tasa ordaintzen denean.
2. Lurperatze-eskubideak haren titularrari ahalmena ematen dio hilerrian izendaturiko lurperatze- unitatea edukitzeko eta erabiltzeko, tituluan adierazitako epean.

Barne hartzen ditu lurraren erabilera eta gorpuak edo gorpuzkinak hilobiratzeko, zaintzeko edo gordetzeko egindako eraikinak, lursaila edo lurperatze-unitatea beste edozertarako erabiltzerik izango ez dela.

3. Lurperatze-eskubidea eman ahal izango da gorpuak hilobiratzeko nahiz gorpuzkiak edo errautsak gordetzeko.

##### 28. ARTIKULUA.- Xedea.

Lurperatze-eskubidea honako hauek direla-eta sor daiteke:

- Lursailak. Lurperatze-eskubidearen onuradunak lursailean panteoiak eraiki ahal izango ditu, unean-unean ezartzen diren baldintzak betez.
- Dagoneneko eraikita dauden familia-panteoiak (erabilera pribatiboa).
- Erabilera komuneko panteoiak
- Gorpuzkien horma-hilobiak.
- Erabilera komun edo pribatiboko horma-hilobiak.
- Erabilera komuneko kolunbarioak

##### 29. ARTIKULUA.- Titulartasuna

- Hernaniko herritar oro da lurperatze-eskubidearen titular, hilobiratzeko edo gorpuzkiak edo errautsak gordetzeko modalitateren batean (28. artikuluan aipatu dira).
- Udalerrian jaio bai baina bertan bizi ez direnek partzelak edo familia-panteoiak emakidan emateko deitzen diren prozedura publikoetan parte hartzeko eskubidea izango dute.
- Lurperatze-eskubideak udal jabari publikoko ondasunen erabilera arautzeko xedapenekin bat etorri emango dira. Partzelen eta familia-panteoien emakidak enkante bidez esleituko dira.
- Lurperatze-eskubidea lurperatze-unitate bakoitzerako emango da:



- Pertsona fisiko baten izenean.
  - Bi ezkontideen izenean, izatezko bikotearen izenean edo 5 urteko elkarbizitza justifikatuta dutenen izenean, dena dela ere lehen eskuratzearen uneko erregimen ekonomikoa.
  - Familia-lotura duten bi pertsonen izenean.
  - Korporazio, fundazio, erakunde, erlijio komunitate, ongintza establezimendu eta ospitaleen izenean, euren kide, langile, babestu eta egoiliarrentzat bakarrik.
- Inolaz ere ezingo da lurperatze-eskubidea merkataritza entitateen izenean erregistratu, bereziki aseguru-etxeen, aurreikuspen konpainien edo antzekoen izenean, baldin eta dagokion jardueraren barruan bezeroei hiltzen direnerako lurperatze-eskubidea eskaintzen badie, esklusiboki nahiz beste arrisku batzuen osagarri gisa.
  - Senar-emazteen edo izatezko bikoteen kasuan, horietako bakoitzak %50eko partaidetza izango du.
  - Gainerako ondasun-komunitateetan eskaeran zehaztu beharko da kide bakoitzari dagokion ehuneko.

### 30. ARTIKULUA.- Ordezkarria

- Lurperatze-eskubidearen titularra edo titularrak eskubide horri atxikitako eskubide eta betebeharren titular ere badira. Hala ere, titularkidetzen kasuan –bai hasieratik titularkide direlako, edo bai lurperatze-eskubidea behin eta berriz eskualdatu delako– titularkideek ordezkarri bat izendatu beharko dute, eta hura izango da lurperatze-eskubideak atxikita dituen eskubide eta betebeharren arduradun zuzena; nolana ere, gainerako titularrei haiei dagokien zatia eskatzeko eskubidea izango du.
- Titularraren ordezkarriak ordezkatzen du titularraren nahia udalean, eta hark baimentzen ditu lurperatzeak.
- Ordezkarria da lurperatze-eskubideei ezartzen zaizkien tasa eta zergen subjektu pasiboa.
- Ordezkarria errebokatze, titularkideek ordezkarri berria izendatu beharko dute. Horretarako %50etik gorako partaidetza beharko da.
- Ordezkarria hiltzen bada, Udalak beste norbait izenda dezatela eskatuko die titularkideei. Titularkideek aho batez proposatzen dutena aukeratuko dute edo, bestela, gehienek proposatzen dutena.
- Izendapen hori egiten ez bada edo izendatu denak ez badu izendapena onartzen, Udalak izendatuko du ordezkarria, irizpide hauei jarraiki:
  - Portzentaje handiena duena
  - Eskubide bera dutenen artean, udalerrian bizi dena.
  - Bat baino gehiago badira, zozketa bitartez erabakiko da, dei eginda dauden egunean bertan.

### 31. ARTIKULUA.- Betebeharrak

Lurperatze-eskubideen emakidadunek betebeharrak orokor hauek dauzkate:

- Hilobia baldintza egokietan mantentzeko betebeharrak, alderdi hauei dagokienez: garbitasuna, kontserbazioa, apaindura eta estetika. Ezin da jarri hilerriaren egungo estetika hautsi dezakeen elementurik, beraz, hilarriak, lauzak, itxiturak eta gainerako apaingarriak

jartzeko garaian, oraingo irizpide estetikoak jarraitu behar dira, eta Udalak etorkizunean horri buruzko arau berriak jartzen baditu, haiek ere bai.

- Ez da inola ere onartuko udal langileen lana zailtzen duten plaka-estaldurarik edo eraikuntza nahiz apaindura elementurik jartzea. Hain zuzen, horma-hilobien kasuan, ez da onartuko hilobiaren egituratik kanpora ateratzen diren apal, kristal edo antzekorik.
- Emakida bukatzen denean, titularrek apaingarriak eta elementu estetikoak kendu beharko dituzte. Bestela, Udalak erabakiko du apaingarri horiekin zer egin, eta titularrek ez dute eskubiderik izango erreklamazioak egiteko edo kalte-ordaina jasotzeko.
- Ordenantza Fiskalean jasotako eskubide eta tasak ordaintzeko betebeharra: emandako zerbitzu ezberdinei dagozkien eskubideak, eta erabilera pribatiboari dagozkion tasak.
- Panteoia erabiltzeko emakidei dagokienez, emakidadunaren ardua izango da hurrengo lurperatzeetarako nahikoa leku izatea, eta panteoia betetzear dagoenean, gorpuzkiak murriztu arazi egin beharko ditu.
- Lurperatze-unitatea partzela bat baldin bada, lurperatze-eskubidearen titularrak panteoia edo hilobi-eraikuntza eraiki beharko du, ordenantza honetan ezarritako arauekin eta dagokion tituluan adierazten diren baldintzekin bat, eta horretarako adierazitako epean.
- Aurreko ataletan adierazitako betebeharez gain, Udalak edo beste administrazio edo erakunde eskudunek emandako xedapenak errespetatu eta bete beharko dituzte emakidadunek.

### **32. ARTIKULUA.- Eraikuntzak.**

**Inolaz ere ez dira baimenduko besteen gaintik nabarmendu nahi diren eraikuntzak, edo gainerako eraikuntzen uniformetasuna hausten dutenak.**

Lurperatze-unitateetan egindako eraikuntzak beti udalaren onurarako izango dira.

### **33. ARTIKULUA.- Titulu egiaztagarria**

Lurperatze-eskubidearen emakida Udalak egiaztatuko du, hori ziurtatuko duen titulua emanaz eta, bestalde, bermaturik geratuko da dagokion errolda liburuan jasota.

Lurperatze-eskubidearen emakida-tituluak datu hauek jasoko ditu:

- Hilobiaren edo lurperatze-unitatearen identifikazioa.
- Ordaindutako hasierako eskubideak
- Esleipenaren data, izaera eta atal kopurua.
- Titularren izen-abizenak -ordenantza hau indarrean jartzen denetik aurrera bakarria izango dena- edo udalaren aurrean titularkideen ordezkari denarenak -inprimaki ereduaren arabera izendatua-, ordenantza honen aurreko titulartasunetarako.
- Eskubideen eta, hala badagokio, aldizkako tasen epemugak eta ordainketak.
- Hilobiratu, hilobitik atera eta lekuz aldatu diren gorpu edo gorpuzkien izena, abizena eta sexua eta zerbitzu horien data.

- Bizien arteko edo heriotzaren ondoriozko eskualdaketa jarraituak.
- Onuradunaren, oinordekoaren edo usufruktua duenaren izena.
- Lagapena iraungitzearen ondorioz edo bestelako edozein arrazoi tarteko hilobia, horma-hilobia edo kolunbarioa udalaren esku geratu den eguna.

## **BIGARREN KAPITULUA.- LURPERATZE-ESKUBIDEEN IRAUNALDIA**

### **34. ARTIKULUA.-**

Tituluan jasotzen den lurperatze-eskubiderako epea ez dute etengo edo aldatuko indarraldian gauzatutako hilobiratzeek ezta titulu eskualdaketek ere.

### **35. ARTIKULUA.-**

Lurperatze-eskubidearen indarraldia amaitutakoan, eta titulu berririk eskatzeko asmorik egon ezean, lurperatze-unitatea hustu egin beharko da, eta hartan diren gorpuzkiekin titularrak esandakoa egingo da, beti ere indarreko xedapen tekniko eta sanitarioen arabera.

Bestela, gorpuzkiak murriztu eta hezurtegi orokorrera eramango dira.

### **36. ARTIKULUA.- Familia-panteoi eta horma-hilobien emakidak. (Erabilera pribatiboa)**

Panteoiak erabiltzeko emakida berrogeita hamar urterako izango da. Epe hori luzatzeko aukera badago, gehienez ere beste berrogeita bederatzi urterako, eskumena duen udal organoak hartutako erabakiaren bitartez, emakidaren titularrak edo hark udalarekin aritzeko duen ordezkariak eskaera egiten badu, eta dagokion tasa ordaintzen badu.

Emakidak betirako edo data zehatzik ezarri gabe eman badira, emakidaren epea gehienez ere laurogeita hemeretzi urtekoa dela joko da.

### **37. ARTIKULUA.- Erabilera komuneko horma-hilobien emakidak.**

Gorpuak hilobiratzeko horma-hilobien erabilera hamar (10) urterakoa izango da. Epe hori beste bost (5) urtez luzatu ahal izango da, eskaera egiten baldin bada. Emakida bukatzen denean, esleipendunak gorpuzkiak gorpuzkietarako horma-hilobian gordetzeko lurperatze-eskubidea izateko aukera izango du. Hori ere esleipen bidez emango da, bost (5) urterako, beste bost (5) urtez luzatu ahal izango dena, eta gehienez ere 20 urte arte, aldez aurretik eskatuta eta ordaindu beharreko tasa ordainduta.

Epe hori bukatu ondoren gorpuzkiak hezurtegi orokorrera eramango dira. Emakida-epeak, luzapenak barne, hilerrian libre dagoen lekua kontuan hartuta emango dira.

### **38. ARTIKULUA.- Erabilera komuneko panteoien emakida**

Panteoi komunitarioen erabilera hamar (10) urterako izango da. Epe hori beste bost (5) urtez luzatu ahal izango da, eskaera egiten baldin bada eta beste erabiltzaile batzuekin partekatuta. Epe hori

bukatzen denean, esleipendunak gorpuzkiak gorpuzkietarako horma-hilobian gordetzeko lurperatze-eskubidea izateko aukera izango du. Hori ere esleipen bidez emango da, bost (5) urterako, beste bost (5) urtez luzatu ahal izango dena, eta gehienez ere 20 urte arte, aldez aurretik eskatuta eta ordaindu beharreko tasa ordainduta.

Azken epe hori bukatu ondoren, edo gorpuzkietarako horma-hilobia erabiltzen ez bada, gorpuzkiak murriztu eta hezurtegi orokorrera eramango dira. Emakida-epeak, luzapenak barne, hilerrian libre dagoen lekua kontuan hartuta emango dira.

### **39. ARTIKULUA.- Erabilera komuneko kolunbarioen emakida**

Kolunbarioak errautsen kutzak jasotzeko lekuak dira eta gorpuak erre ondoren edo gorpuzkiak errauts bihurtu ondoren sortzen diren errautsak zaintzeko eta gordetzeko erabiltzen dira. Kolunbarioen erabilera hamar (10) urterako izango da. Epe hori beste bost (5) urtez luzatu ahal izango da, eskaera egiten baldin bada eta ordaindu beharreko tasa ordaintzen bada. Emakida bukatzen denean gorpuzkiak murriztu eta hezurtegi orokorrera eramango dira eta haiekin eskatzen dena egingo da. Emakida-epeak, luzapenak barne, hilerrian libre dagoen lekua kontuan hartuta emango dira.

## **HIRUGARREN KAPITULUA.-LURPERATZE-ESKUBIDEAK ALDATZEA ETA ESKUALDATZEA**

### **40. ARTIKULUA.-**

Udal hilerrietan dauden lurperatze-unitate guztiak salerosi ezinezko ondasuntzat hartzen dira. Beraz, ezingo dira inolako salerosketaren gai izan, ordenantza honetan xedaturiko eskualdaketez kanpo.

### **41. ARTIKULUA.- Heriotzaren ondoriozko eskualdaketa.**

**Lurperatze-eskubidea titularra hiltzen denean eskualda daiteke, testamentu xedapenen arabera, edo bestela, testamenturik gabeko oinordetzaren arabera, zuzenbide zibilaren arauen arabera.**

Testamentuan edo *abintestato* bidez oinordeko bat baino gehiago izendatu badira, titulartasuna jaso eta Udalean euren ordezkari izango dena adostasunez izendatuko dute; adostasunik lortuko ez balitz, ordenantza honen 30. artikuluan aurreikusitakoarekin bat erabakiko litzateke haien ordezkaria nor den.

Testamentuaren bidez edozein hilobi motaren usufruktua ondorengoei uzten zaienean, lurperatze-eskubidearen titulartasuna usufruktu hartzaileari emango zaio.

### **42. ARTIKULUA.- Bizien arteko eskualdaketa.**

Lurperatze-eskubidea bizien artean eskualdatzea onartuko da bakarrik doako lagapena egiten bada. Lagapenean lagatzailearen borondate-deklarazioa eta titular berriaren onarpena agertu beharko du. Eta honako kasu hauetakoren batean egin daiteke:

- a) Titularraren senideen alde, laugarren maila arte zuzenekoei eta zeharrekoiei dagokienez, biak ere odolkidetasunez; eta, afinitatez, bigarren maila arte.
- b) Ezkontidearen, izatezko bikotekidearen edo titularrarekin 5 urteko elkarbizitza egiaztatzen duten pertsonen alde (5 urteko elkarbizitza eskualdaketa aurreko 5 urteetakoa izan behar du).
- c) Ospitale eta izaera juridikoa duten ongintza edo erlijio erakundeen alde.

Dohainik laga ahal izateko, Udalak baimena eman beharko du, eta baimenean datu hauek adieraziko dira: eskubidearen iraunaldia amaitzeko zenbat denbora falta den eta ordenantzaren arabera tituluetan jaso beharreko gainerako baldintzak eta datuak.

## **LAUGARREN KAPITULUA.- LURPERATZE-ESKUBIDEA IRAUNGITZEA , AZKENTZEA ETA ITZULTZEA**

**43. ARTIKULUA.**-Emandako lurperatze-eskubidea iraungitzat jo ahal izango da indarrean dagoen legedi administratiboaren arabera iraungitze-espedientea ireki ondoren, eta Udalari itzuliko zaio, baldin eta:

- a) Titularrak uko egiten badu.
- b) Eraikuntza aurri egoeran edo utzita dagoela jotzen bada, eraikuntza partikularra izanez gero.
- c) **Lurperatze-eskubidearen emakida epea bukatu eta epea luzatzen ez bada.**
- d) **Titularra hil eta 10 urte pasa ondoren oinordekoek eskubidea eskatu ez badute.**
- e) **Eskualdaketa legez kanpo edo ordenantza honetan xedatutakoa bete gabe egin bada.**
- f) **Ordenantza honen arabera xedatzen diren tasak ordaindu ez badira.**
- g) Lurperatze-unitatearen emakida ondoriorik gabe uzteko ebazpena ematen bada, interesak publikoak eragindako indargabetze, atzera berreskuratze, desjabetze edo bestelako prozedura dela bide. Kasu horietan titularrei beste lurperatze-unitate bat emango zaie, epea amaitu arte falta den aldirako, baldin eta hilerriren batean unitateren bat libre badago. Bestela, aldeko espedientea bideratuko da, kalterik ordaindu behar den edo ez argitzeko.

### **44. ARTIKULUA.- Titularrak uko egitea (Itzultzea)**

**Lurperatze-eskubideari uko eginez gero, lurperatze-eskubidearen titularrak Udalari jakinarazi behar dio eskubide horri uko egin nahi diola, eta erakundearen esku utziko du lurperatze-unitatea.**

**Lurperatze-eskubideari uko egin ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira:**

—Lurperatze-unitatean inolako gorpuzkirik ez egotea.

—Titulartasun gatazkarik ez izatea lurperatze-unitate horren gainean.

Uko egiteko eskaera eginda ere, lurperatze-eskubidearen titularrak bere gain hartu beharko ditu titulartasun horrek eragindako gastuak harik eta Udalak ukoa onartzeko ebazpena eman arte.

Eskatutako uko egiteari buruzko ebazpena eman ahal izateko, udalak udal hilerriren egoera, erabilgarri dauden lurperatze-unitateak eta bidezko jotzen dituen bestelako inguruabarrak hartuko ditu kontuan. Ebazpen arrazoitua izan beharko du eta uko egitea onartzen ala baztertzen den ebatziko. Onartzen baldin bada, ebazpenean bertan interesatuak jaso beharreko kopurua finkatuko da, hala badagokio, dagokion ordenantza fiskalean ezarritakoarekin bat etorritz.

Uko egitea eskatzen denetik hiru hilabete pasa eta oraindik berariazko ebazpenik eman ez bada, interesatuak bere eskaera ezeztatu dela ulertu beharko du.

#### **45. ARTIKULUA.- Entzunaldiaren izapidea.**

Eskubidea 43. artikulua b), f), g) eta h) ataletan jasota datozen arrazoiak direla-eta lehenago iraungitzeko administrazio-espeditentia titularrari jakinaraziko zaio, zuzenbidearen arabera komeni zaiona alegatu ahal izateko.

#### **46. ARTIKULUA.- Gorpuzkiak hezurtegi orokorrera eramatea.**

Lurperatze-eskubidea iraungita lurperatze-unitatean gelditzen diren gorpuzkiak, interesatuak jakitun jarri ostean, hezurtegi orokorrera eramango dira, edo, bestela, erraustu egingo dira, hildakoaren senideek edo baimendun pertsonak beste hilobiren batera eramateko eskatu ezean.

### **IV TITULUA - OBRAK, ERAIKINAK ETA KONPONKETAK**

#### **47. ARTIKULUA.- Zaintzea**

**Udalari dagozkio hilerriko instalazio orokorrak zaintzea eta haien mantentze-lanak egitea.**

**Udalari dagokio, halaber, panteoien urteko mantentze-lanak egitea, hots, belarrak garbitu, fumigatu, zimeldutako loreak kendu...**

**Partikularrei dagokie lurperatze-unitateak garbitzea, apaintzea eta haien mantentze-lanak egitea.**

Partikularren batek lurperatze-unitatea zaintzeko betebeharra beteko ez balu, eta hondatzen ari dela ikusiko balitz, Udalak eskubide horren titularrari eskatuko lioke beharrezko garbiketa-lanak edo obrak egin ditzala, garbitasun, apaindura eta segurtasun baldintzak bete daitezzen. Eta horretarako epe jakin bat emango. Partikularrak agindua beteko ez balu, Udalak subsidiarioki eta obligaziodunen kontura jardungo luke.

#### **48. KAPITULUA.-Obrak**

**Hilerrietan edozein obra egiteko alde aurretik udalari baimena eskatu beharko zaio.**

Lauzak eta hilarriak egiteko eta konpontzeko material nobleak erabili beharko dira.

### **V. TITULUA.-GATAZKAK KONPONTZEA**

#### **49. ARTIKULUA.-**

Udalari dagokio lurperatze-eskubideari, titulartasunari, ordezkartzari eta erabilerari buruz partikularren artean gertatzen diren gatazkei edo eztabaidei irtenbidea ematea, administrazio-ebazpen bidez. Ebazpen hori interesdunei jakinaraziko zaie, eta Administrazioarekiko Auzitarako dagokion Epaitegiak berrikusi ahal izango du.

#### **50.- ARTIKULUA.-**

**1. Gatazka gorpua lurperatzeko lekuari buruzkoa baldin bada eta, premia kontuengatik, Udalak behin**

betiko erabakia hartzerik ezin baldin badauka, behin-behineko horma-hilobi batean hilobiratuko da. Azkenik gatazka hori udal ebazpen irmo baten bidez ebazten denean, gorpua behin betiko hilobiratuta geratuko den lekura eramango da.

Behin betiko hilobiratzea beste hilerri batean egin nahi badute, aurrez gorpua baltsamatu behar da, eta osasun-agintariei baimena eskatu.

2. Aldiz, gatazka gorpuzkiak hilobitik ateratzeko edo gorpuzkiak murrizteko garaian sortzen bada, ez da behin-behineko neurririk hartuko, eta gauzak bere horretan utziko dira, gatazka behin betiko konpondu arte.

#### **IV TITULUA.- ARAU HAUSTEAK**

##### **51. ARTIKULUA.-**

Araudi honetan jasotako arauak hausten baldin badira Alkatezak zigortuko ditu, indarrean dagoen legediaren arabera. Dena den, horrek ez ditu ezertan galaraziko arlo jurisdikzionalaren aurrean sor zitezkeen erantzukizunak.

#### **VII. TITULUA.-ZERGAK, TASAK ETA PREZIOAK**

##### **52. ARTIKULUA.-**

Ordenantza fiskaletan jasoko dira ematen diren zerbitzuengatik kobratu beharreko tasak, eta lurperatze-eskubidea eman, eskualdatu edo aldatzeagatik kobratu beharrekoak.

##### **XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA**

Udalak ordenantza hau onartu ondoren lurperatze-unitateen zerrenda argitaratuko du, eta zerrenda horretan datu hauek adieraziko dira: lurperatze-unitateetan agertzen diren titularkideak, unitateen ordezkariak -aldeztatik izendatu badituzte- eta lurperatze-unitateak auri egoeran edo utzita dauden.

Zerrenda hori jendaurrean jarriko da eta interesdunei entzunaldiaren izapidea eskainiko zaie, bi hilabetez, alegazioak aurkez ditzaten. Epe horretan bertan, ordezkariak ez duten lurperatze-unitateen titularrek ordezkaria izendatu behar dute eta hark onartu. Ordezkariak izendatzen ez badute, edo izendatzen duten ordezkariak izendapena onartzen ez badu, Udalak izendatuko du, Ordenantzaren 30. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

Alegazioak aztertu ondoren behin betiko lurperatze-unitate eta titularren zerrenda onartuko da, eta horrek amaiera emango dio administrazio-bideari. Zerrenda hori Udaleko iragarki-taulan argitaratuko da, eta horrez gain, alegazioak aurkeztu dituztenei zuzenean jakinaraziko zaie.

##### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Araudi hau indarrean jartzen denetik aurrera indargabeturik geratuko dira honekin bateragarriak ez diren edo kontrakaririk dioten Hernaniko Udalaren beste xedapen guztiak. Zehazki 2008ko abuztuaren 11ko GAOon argitaratutako *"Hernaniko Udal Hilerriaren Araudia"* eta araudi horren aldaketa, 2009ko abuztuaren 25eko GAOon argitaratua.

##### **AZKEN XEDAPENA**

Araudi hau indarrean sartuko da behin betiko onartutako testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik 20 egun baliodunetara.